

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1991ko Uztailak 12, 114. zenbakia

Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**JON IÑAKI
LASA,**
Idazteko
motibazio
barik

**"Bihotzeko
ganbarak"**
otonobela



Imanol & Imanol

Pintura eta buztingintza irakasten

Joseba



HOTZ-BERO

KLIMATIZAZIOA

Kanpantorpea 2, Tfnoak: 79 70 98 eta 79 67 54

ARRASATE

- AIRE GIROTUA
- BEROKUNTZA
- ERAUZKETA (Estrazioak)
- ARAZKETAK
- MANTENUA

San Andres auzoan

MESON MANOLO

- **Kolorezko eta zuri-beltzezko fotokopiak**
- **Ezteietarako gonbidapenak**
- **Txartelak**
- **Offset inprimakiak**

fasprint

Inprimaketa denda

Arrasate Pasealekua, 2

Telf. 77 06 11

Fax. 77 09 86

20500 Arrasate

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Joxe Aranzabal

Erredakzioa:

Bernardo Kortabarria. Eudne Mujika

Publizitatea eta harpidetzak:

Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia, Iñaki Mendiguren

Kolaboratzaileak:

Josemari Velez de Mendizabal, Mikel Irizar, Karmele Zuazubiskar, Patxi Montero, Juan Martin Elexpuru, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Estepan Plazaola, Jesus Mari Garai, Juanito Leibar, Jerardo Elortza, Blanca Jauregi, Klarion Taldea, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Iñaki Aranburu, Hankamotz, Maite Toledo, Atalataikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Txipi Ormaetxea, Arantxa Ozaeta.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 7.000 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

1448ko erreketeta eta bulda (1)

Ikerketa lana, berez, zaila eta neketsu izanik, sarri asko horma sendo eta garaiak oztopatzen zaizkigu, aurrera egitea ezina bihur daki-gukeelarik. Hala ere, askotan ere ezusteko galantak jasotzen ditugu, ikerketaren arloko itzalak argi bihurtuz. Eta gehienetan, bapateko aurkikuntza edo argibideak gutxien espero dezakegun tokitik heltzen zaizkigu; horrexegatik dira eta, hain zuzen ere, ezusteko.

Lehengoan, Arrasateko eliza nagusiaren gaineko zenbait daturen bila nenbilerarik, hara nondik Aita Demetrio Garmendia frantziskotarrak telefonoz deitu zidan. Zer dela eta? Ba, bere lekaikide den Saturnino Ruiz de Loizaga arabarrak, Arrasaten 1448an gertaturiko erreketeta handi eta zeharo birrintzaileari buruzko aipamena aurkitua zuela esateko. Aita Saturninok urteak daramatza Vatikanoko artxiiboak arakutzen eta beste idazki askoren artean, 1455ean Calixto III Aita Sainduak Arrasateko herriari eskainitako bulda topatu du.

1448an, San Juan bezperan zehatzago, bertako ganboar eta oinaztarren arteko liskarrak goia eginez, ganboarrek herriari su eman zioten lau izkinetatik. Itzela izan omen zen ondorioa: orduko biztanleak sugarretatik ihes eginez, harre-

sietatik kanpokaldean zeuden ganboarren eskuetara jausi ziren. Ikara-garrizko sarraskia gertatu ei zen, historiagileen lekukotasunari jarraiki.

Arrasateko eliza nagusia berriro eraiki ahal izateko bertako abadeek indulgentzietako bideari ekin zioten, eraikitze lanetan diruz nahiz beste edozein gaiz laguntzen zutenentzat. Otxoa Pedro Zumarraga zen garaiko artziprestea eta Eneko Joan de Gomiziano erretore. Horiexek izenpetu zuten Erromara bialdutako eskabidea, San Juan Bataiatzailearen adbokaziopean ipinitako eliza ostera saindu berberari eskaintzeko gogoazalduz. Ez dakigu -oraingoz- noiz igorri zuten dokumentua eta, beraz, ezina zaigu zeini zihoakion zuzenduta ezagutzea. Dakiguna, berriz, zera da, Calixto III 1455eko apirilaren 20an izan zela aukeratua Aita Saindu eta handik zenbait egunetara bulda promulgatu zuela, maiatzaren 4ean hain zuzen.

Buldako zehazkizunik azpimarregarrienak ez ditut gaurko honetan azaldu ahal izango. Hurrengorako utziko ditut, interesgarriak direla iruditzen bait zait. Gure herriko historiari argi pixkat ematen diote, urte latz haietan Ahaide Nagusien arteko borroka mingotsak hurbilago-tzen zaizkigularik.

Josemari Velez de Mendizabal

MIREN

APAINDEGIA

Zarugalde 23, 2. Ezk.
Tfnoa: 79 96 90 ARRASATE

comercial
san juan

Garibal 12,
Tfnoa: 79 13 05

hikein
ENMARKETAZIOA

Zerkaosteta 4,
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz 9, Tfnoa: 79 94 57

HIRE

Liburu eta oparidenda

Iturriotz 4, Tfnoa 79 14 84

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi 3,
Tfnoa: 79 36 46

olioak, **Artea**
lientzoak,
akwarelak eta
eskulanak

Ferreitas 25, Tfnoa: 77 10 95

ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

ARETXABALETA

Etxebizitza gehiago errentan

Pasa den astean, Amaia antzokian, Larrean eraikiko diren Babes Ofizialeko 110 etxebizitzak zozkatu ziren.

Iniziatiba txalogarria iruditzen zait, Udalak, ahal duen neurrian, gaur egun bizi dugun arazo larriari irtenbideak ematen saiatzea.

Larreako etxebizitzaren jabetza eskuratzeko, adibidez, Udaleko Obra eta Hirigintza Batzordean 503 eskari jaso ziren; seinalea mondrauetarrok benetan sentitzen dugula behar hori, nork bere etxea edukitzearen beharra, hain zuzen ere.

Dena den, eta gai berdinarekin inguruan, oraindik ere arlo zabal bat jorratu gabe dagoela uste dut: etxebizitzak alokairuan ematearen arloa.

Babes Ofizialekoak, beste guztiak baino merkeagoak izanda ere, bederatzita milioi PTA. inguru balio dute. Ez dut esaten garestiak direnik. Baina halere, arrasatear askotxok, batez ere gazteok, ez daukagu dirutza hori lortzeko inolako aukerarik.

Mondragoen mila etxebizitza inguru omen daude hutsik. Zergatik? Ez al da posible hauen jabeekin harremanetan jarri, eta guztiak ez badira ere, batzuk behintzat alokairuan ematea?

Hogeitabost, hogeitasei... hogeitapiku urteko gazte gehienak oraindik ere gurasoen kontura bizitzera behartuak gaude, zer eta milioi mordoska eskuratzeko modurik ez daukagulako. Tristeia!

Babes Ofizialeko etxebizitzak bai, zenbat eta gehiago hobeto; baina alkilerren aukera ere bultzatu beharra dagoela uste dut. Gogoz bultzatu. Gazteon ametsa ez delako bizitza guztia amaren gonazpian sartuta egotea.

Adeitasunez.

Pernando

Agurra

Jaun estimatua: Zuen Arrasate Press laudagarri hori agertu zen bertatik jaso izan dugu, egun itxita dagoen Arantzazuko Seminario honetan. Neure izenean etortzen zen, baina hemen bizi ginen irakasle guztiok ematen genion begiratu bana -Felix Askasibar arrasatearrak batez ere- eta nik, eskolara eramanez ere egiten nuen noizbatzuetan, eta eskola mutikoei irakurri ere egiten nien gustoko zitzaidan zatiren bat edo beste. Seminario hau iaz itxi zen, 1989-1990eko kurtoa bukatu zenean. Beste lagun batekin -komentuko bibliotekan lan egiten duen Joseba Etxebarriarekin- bizi naiz, esan dizudan bezala jadanik itxita dagoen etxe kankarro honetan. Orain, komentura iristen diren egunkari, aldizkari eta gainerako publikazioak erabiltzen ditugu informazio biderako, eta zuen asteroko hori ere han hartzen dutenez, han ikusten dugu.

Orain arte esan dizudanaz ez dut amaitu esan beharreko guztia. Gutxienez, esker ona agertu behar dizut, eta txalotu ere egin nahi dut zuen etengabeko lan apain eta alde askotatik interesgarri hori. Harritu ere egiten nau nola eusten diozuen ikusteak. Iraun eta iraun dezala zuen adore miresgarri horrek eta Arrasate Press hain ponposo horrek. Letra hauek gauza gutxi eta txapel dira eta ezerezak orain artean zuengandik jasotako guztiari erantzuteko, baina esker onezko eta benetazkoak direla dio-tsuet.

Zuen eta Arrasate Pressen miresle,

Bitoriano Gandiaga




Erljioak balio akademikorik bai ala ez?




Elisabete Arbulu
(Umezaina)

Ez. Nire ustez borondatezko ikasgaia izan behar da, eta ez dut uste nota jarri beharra dagoenik.



Diego Murillo
(Langilea)

Ez dakit nota jarri behar den ala ez, ez dut asko ulertzen gai horietaz eta, baina borondatezkoa izan behar dela uste dut.



Aitor Medrano
(Ikaslea)

Ez, erlijioa ez da nota jartzeko ikasgaia, ikasteko bai zik. Norberak ikusiko du sinisten duen ala ez, esan nahi dut hori ezin dela beste ikasgaiak bezala ebaluatu.




Begoña Murgoitio
(Langilea)

Ez dakit.

LENIZ

AUTO ESKOLA



GIDABAIMEN GUZTIAK ZURE ESKU!

ARRASATE - ESKORATZA

LURRINGEGIA

ERTZ

OPARIETAKO ARTIKULOAK

Ferrerias 28, B. Tfnoa: 79 08 70 Arrasate

Memesa

79 42 22

I R A T I

Ferrerias kalea
Tfnoa: 79 71 80

BEHARREZKO TELEFONOAK

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Espezialista)	77 12 64
(Txanda hartzeko)	77 03 46
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio (945)	45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (lberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
.....	79 78 44
.....	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

HIRUGARREN ADINARENTZAKO ZENTRUAK


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

KONTSUMITZAILEARENTZAKO INFORMAZIOA

Deba Garako Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



12

OSTIRALA

• • •

- Zinea: Monterron parkea. "Crímenes del corazón", gaueko 10.30etan.

Alai. "37 horas desesperadas", 7 eta 9.30etan.

- Santamainako jaiak: Arratsaldeko 7etan txapliguen jaurtiketa eta ondoren kalejira erraldoi eta buruhandiekien. Gaueko 10.30etatik aurrera dantzaldia "Jator" taldearekin.

- Goardiako farmazia: -egunez: Corcuera, Musakola. -gauetz: Estella, Bergara.

13

LARUNBATA

• • •

- Zinea: Alai. "37 horas desesperadas", 5, 7 eta 9.30etan.
- Santamainako jaiak: Tute eta mus txapelketak arratsaldeko 3etan. Pilota partiduak arratsaldeko 5etan, bigantxak arratsaldeko 8etan eta gaueko 11.30etan "Nueva

Alaska" taldearekin dantzaldia.

- Kontzertua, "Patri Goialde Trio Jazz". Monterron parkean, gaueko 10.30etan.

- Goardiako farmazia: -egunez: Irizar, Erguin.

-gauetz: Mozos, Bergara.

14

IGANDEA

• • •

- Zinea: Alai. "Esperando a Mr. Bridge", 5, 7 eta 9.30etan.

- Santamainako jaiak: Futbito txapelketako azken partidua, eguerdiko ordubatean. Arratsaldeko 8etan Bigantxak eta Pottokak. Ordu berean, rock jaialdia "Malaña" taldearekin.

- Goardiako farmazia: -egunez: Amezua, Santamaina.

-gauetz: Mozos, Bergara.

15

ASTELEHENA

• • •

- Zinea: Alai. "Esperando a Mr. Bridge", 7 eta 9.30etan.

- Hitzaldia, "Gizarte kontrola".

Monterronen, arratsaldeko 7etan.

- Goardiako farmazia: -egunez: Aurora Ruiz, Maala.

-gauetz: Puy, Bergara.

16

ASTEARTEA

• • •

- Zinea: Alai. "Esperando a Mr. Bridge", 7 eta 9.30etan.

- Bideo-emanaldia, "Adin-txikiaren kontrola". Monterronen, arratsaldeko 7etan.

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

17

ASTEAZKENA

• • •

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

18

OSTEGUNA

• • •

- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.

Kirol Agenda

Mendia

• • •

- Besaide Mendizale Elkarteak antolatuturik, Leintz bailarako laugarren itzulia. Igan-dean, Portaloitik irtenda, goizeko 7etan.

Txirrindularitza

• • •

- Arrasate-Gatzaga, erlojuaren aurka. Igan-dean, goizeko 11.30etan.

Futbitoa

• • •

- Santamainako txapelketako azken bi partidua. Santamaina, igandean, eguerdiko 12etatik aurrera.

Pilota

• • •

- Reyes eta Txikito de Benerasen arteko pilota partidua. Santamainan, larunbatean, arratsaldeko 5.30etatik aurrera.

Liburua

• Robin Hood.

Roberto Ausonako. Elkar itzul saila. Ez da edizio berria gaur aurkezten dizuegun hau. Orain hamar urte plazaratu zen. Dena den, bi filme etorri zaizkigu uda honetan XII. mendeko pertsonaia honi buruz. Hori dela eta, irakurgai polita izan daiteke uda honetarako.

Robin Hood



Robin Hood, Sherwood-eko ohianeko errefuxiatuen buruzagiaren ondoan, Rikardo Lehoi Bihotz, Joan Lurgabea, Tuck, Much, Elizabeth At Lea eta beste heroi asko azaltzen zaizkigu. Abentura-liburu ego-kia Xabier Mendigurenen itzulpenaren garantiarekin.



JAIAK

Santamainan denetarik

Atzo hasi eta igandera arte, Santamainako jaien barnean izango da zerikusi eta zereginik. Jaien egitarau osoa ematea ezinezkoa denez, garrantzitsuena aipatzera mugatu behar. Gaur arratsaldeko 6etan, mutikoen futbito txapelketako azken partidua jokatu da. Gauean berriz, 10.30etatik aurrera Jator taldearekin dantzaldia izango da.

Larunbat goiza gehienbat umeentzako jolas eta kirolak osatuko dute. Arratsaldean tute eta mus txapelketak iragartzen dira, eta 5.30etatik aurrera izugarritzko pilota partiduak. Iluntzerako bigantxak jarri dituzte Mentu enparantzan eta gauean berriz ere goizaldera arteko dantzaldia, "Nueva Alaska" taldearekin.

Igandean jaiak bukatu emango zaie. Bezperan bezala, goiz partean kirola izango da nagusi, auzoko hamaikagarrren futbito txapelketako azken partidua jokatu da eta. Arratsalde partean, erraldoi eta buruhandien kalejira, bigantxak eta pottokak, eta martxa handiarekin bukatzeko rock kontzertua, Malafia taldearekin.

nahi duen edonork, dagoeneko bidali dezake bere lana. Lehiaketa honetara aurkezteko lanek gutxienez 30 folio izan behar dituzte, edozein gairi buruz, baina narrazioan. Jaki-na denez, idazlanak argitaragabeak izan behar dira eta honako helbide honetara bidali behar dira: Santa Maria Fundazioa. (Haur - Liburu lehiaketa) Txako auzoa, 3. 48480, Arrigorriaga (Bizkaia). Lanak bidaltzeko azken eguna, azaroaren 15a izango da. Ahaztu barik esan behar irabazlearen saria 1.000.000 PTAKoa izango dela. Bigarrenarena berriz,

200.000 pezetakoa.

Autobusak

• Pastoral Muskildin.

Muskildiko herriak antolatutako datorren uztailaren 21ean eta abuztuaren 3an, "Harizpe" pastoralak antzetzuko da, Muskildin bertan. AEDk, uztailaren 21ean arratsaldeko lauretan antzetzuko den pastoralak ikusteko autobusa antolatu du. Autobusaren irteera goizeko 8.15etan izango da, Garibai geltokian. AEDk eskainitako

autobus zerbitzu honetaz baliatu nahi dutenek, hilaren 19a baino lehen izena eman dezakete Hire liburudendan edo AEDn. Bidaiaren prezioa 1.000 pezetakoa da.

Erakusketak

• Zeramika eta Pintura Monterronen.

Hilaren 15a arte, Monterroneko erakustokietan zeramika eta pintura erakusketak ikusteko aukera izango da. Erakusketak honetan, urtean zehar zeramika eta pintura ikastarotaren parte hartu duen jendearen lanak ikus daitezke.



Kontzertuak

• Patri Goialde Trio


Bihar gaueko 10.30etatik aurrera "Patri Goialde Trio" taldeak jazz kontzertua eskainiko du Monterroneko parkean. Talde honek, hirukote klasikoen bide bera jarraitzen du, konposizio estandarretatik abiatuta. Dena dela, moldaketaren orijinaltasunak eta sonoritate akustikoak nortasun berezia ematen dio.

Taldea osatzen dutenak, Gonzalo Tejada kontrabajoa, Jose Ramon Elkoro bateria, eta Patri Goialde kitarra dira. Jose Ramon Elkoro arrasatearra da eta bere ikasketak Arrasate Musikal eta Donostiako kontserbategian egin ditu.

Lehiaketak

• Haur-liburu lehiaketa.

Iaz Aitor Aranak irabazitako lehiaketa honetan parte hartu



“.....
Izan nituen, bai, zenbait hartueman Txominekin. Estimatu handia nion Txomini. Ziur nago hil ez balitz, gauzak erabat aldatuko ziratekeela, Txominen heriotza desgrazia itzela izan zela denontzat, politika mailan. Iñaki Esnaola bera bat datorrela uste dut nire pentsatzeko moduz”.

(Eli Galdos Gipuzkoako Diputatu Nagusiak DV egunkarian)

“.....
Zergatik itzuli nintzen Mondragoera? Zer egin behar nuen ba, Madrilen bakar-bakarrik? Nahia-go izan nuen neure herrira itzuli. Behin hemen, Arrasate Musikaleko zuzendaritza bila etorri zitzaidan eta eurekin entseiatzen hasi nintzen. Jende zoragarria da. Musika-giro berezia dugu hemen, maisu handi bat dugulako, Juanito Artzamendi. Segun ze iradokizun egiten dituen, izan ditudan hainbat maisu gogorazten dit”.


(Albina Madinabeitia bibolinjoleak DV egunkarian)

“.....
Arrasaten, Gob ernu-ekipo berria lanean hasi aurretik zentsura mozio bat jartzea nahiko zentzugabea dela onartu behar da”.

(Mariano Ferrer kazetariak “El Kiosko de la Rosi” irratsaioan)

Zeintzuk dira Santamainako arazo eta behar nagusienak?

Beno, arazoak eta beharrak ugari dira Santamaina aldean. Bertatik pasatzen den edonork antzemango du gure auzoa besteak baino egoera kaxkarragoan dagoela. Bideak estuegiak dira dagoen trafikoarentzat. Aparkalekuak urriegiak; gaueko hamarretatik aurrera gure auzotarrek Musakolan aparkatu behar izaten dute. Espaloiak ere oso egoera tamalgarrian daude, gehienak baldosatu gabe eta konpondu beharrean. Ur-bilketak ere ez daude oso txukun. Beraz, guzti hori ikusirik, Santamaina guztiz abandonatutako auzoa dela esaterik ez badugu ere, egia da egiten diren inbertsioak, dauden beharrak baino txikiagoak direla. Kontuan izan behar da gure auzoa ez dela laua San Andres eta Musakola bezala, eta horrek arazo ugari sortarazten dituela auzoaren urbanizazioari dagokionean. Hala ere, egia esan, dena ez da belatza eta iluna. Azkenaldi honetan, han eta hemen, hainbat gauza egin dira, nik behintzat auzo-alkate daramadan lau urteotan hainbat hobekuntza ikusi ditut; besteak beste, auzo-liburutegia eta jubilatuentzako etxea. Beraz, gaurko egoera lehengo baino hobea da zalantzarik gabe, baina oraindik ere lan asko dago egiteko. Obenerrekako parkea ere, auzoan dugun parke bakarra, konpondu beharrean dago. Beraz, badago, bai, non ekin eta non saiatu. Badakit, batzuk beti negarrez eta eskean gabiltzala pentsatuko dutela, baina garbi dago eskatu ezean ez dela ezer lortzen, eta ezer lortuko bada asko eskatu behar.



Emilio Ermida, Santamainako auzo-alkatea.



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Irakasle Eskola honek zera jakin arazten du:
1991-92 ikasturterako aurreinskripzio-epa zabalik dagoela uztailaren 18ra arte

- Espezialitateak:**
- **ZIENTZIAK**
 - **HAUR-ESKOLA**
 - **EUSKAL FILOLOGIA**
 - **INGELES FILOLOGIA**

Informazioa: Irakasle Eskola. Tfnoa: 943 / 79 04 40.
Ordutegia: 9.00-13.00



**GIZON ETA
EMAKUMEAREN
MODA**

Otalora 2/g
Tfnoa: 79 20 50
ARRASATE

Oñati

- Oñatiko auzolandegia nazioarte-mailakoa da, eta aurten Olapoto parkean kokatua dago. Bertan, 17 gazte dabilta; horietako 16 Estatukoak eta 1 Estatu Batuetakoa.

- Soziologiako Nazioarteko Institutuan urte baterako zuzendari berria izendatu dute. Aurreko zuzendaria Andre-Jean Arnaud frantziarra bazen ere, hurrengo Paavo Uusitalo, 54 urteko finlandiarra, izango da. Bertan adierazi digutenez, hemendik aurrera zuzendariak urtero-urtero aldatuko dituzte.




Bergara

- Hil honen 17rarte zabalik izango da UNEDko matrikulazio epea. Matrikulazio hori egiteko, interesatuek, 17a baino lehen, postaz bidali beharko dute eskabide-orri ofiziala, egun horretatik aurrera UNED itxita egongo baita.

- Joan den astelehenean San Juan errekan ehundaka arrain hilik agertu ziren. Oraingo honetan, ez da industrietako ixurkinen errua izan, basa-ehiztari batzuk, arrain guztiak harrapatu nahirik, errekarra jaurtitako ixurkin toxikoena baizik. Ondorioz erreka 300 metro inguru guztiz erreta geratu da. "Eguzki" eta "Ollagorra ehiza eta arrantza elkarteak" hondamen ekologiko hori salatu dute.


- Asteburu honetan Bergaran San Kristobal jaiak ospatuko dira. Ostiral eta larunbatean, gaueko 11etan, Luhartz taldearekin dantzaldia izango da, eta igandean "Euskal jai". Eguerdiko 12etan Meza Nagusia eta ondoren, autoen be-deinkazioa, 12.30etan luntxa jubilatuentzat eta bukatzeko, 1.30etatik aurrera, Gibitegi harrijasotzailea eta Elorza anaiak trikitilariak.



Aretxabaleta

- UDAk emaitza ezin hobeagoz esan dio agur aurtengo denboraldiari. Denboraldiaren hasieran, zuzentasunez jokatzeari izan zen UDAko antolatzaileen helburuetako bat, eta helburu hori ondo baino hobeto bete da, Gipuzkoa mailako zuzentasuneko saria jaso bait dute UDAko futbol-talde guztiak.

- Leniz Lanbide ikastegiko atxabaltar gazte bik, Mikel Lopez eta Angel Sanchezek, Europara bidaiara irabazi dute EEERi buruzko "Europa Gazteak" programan emaitza onenak lortzeagatik. Bidai horren helburua programa hori osatzea da (Europako erakundeak kusi etab.), eta irailaren 7an irten eta 16an itzuliko dira.



Construcciones ARRASATE S. L.

Udalpe 5, Etxabehea. Erguin auzoa. Tfnoa: 79 04 46 ARRASATE

❑ Fagorren "Jakina"

Irailen Fagor taldeak "Jakina" ize-neko berripapera aterako du, bazkideen artean taldeko informazioa zabaltzeko asmoz. Martxoan frogak egiten hasi ziren eta taldeko lau kooperatibatan bakarrik zabaldu zen orria. Orain arte, beraz, lau zenbaki atera dituzte (1.300 ale bakoitzeko).

"Jakina"ko erredakzio-kontseilua hiru pertsonaz osatua dago: Arantzazu Isasmendi, Elena Goirizelaia eta Lorea Barrutia. Kooperatiba desberdinetako pertsonal sailetan dauden berriemailek osatzen dute sarea. "Jakina" hilero ir-tengo da, printzipioz 7.000 aleko tira-darekin.

❑ Arte Hamabostaldia

Astehenean bilduko dira aurten lehenengoz ofizialki Udala eta Arte Hamabostaldiko antolatzaileak. Oraindik ezer ezin bada zehaztu ere, erraza baino errazagoa izango litzateke aurten Arte Hamabostaldia irailean burutzea. Udalak aurtengo Arte Hamabostaldirako gordeta duen diru kopurua hiru milioi pe-zetakoa da. Jakina denez, irailaren 29an Besaideko eskultura inauguratuko da eta horrekin batera antolatu nahi da Arte Hamabostaldia. Dena dela, gauza ez da bi ekintza horiekin bukatzen, nazioar-teko eskulturen erakusketa egitea ere pentsatu da eta. Erakusketa Monterro-neko parkean izango da, Italia, Luxen-burgo, EEBB, Japonia, Frantzia, Da-naimarka, Argentina eta Estatuko es-kulturagileen lanez osatuta.


❑ UNEDeko matrikula

Datorren hamasei eta hamazazpia arte, UNEDen matrikula zabalik izango da, baina idazkaritza bakarrik goizez izango da zabalik, hamaiketatik or-dubartetara bitartean.

Txandaka

GURE ERREKEN BERRESKURATZEAREN ALDE

Behin eta berriro en-tzun izan dugu zein penagarria den Arrasate-ko ibaien egoera ekolo-gikoa. Guk penagarria ez ezik, tamalgarria dela gehituko genuke. Gura baino gehiago errepikatu digute zein premiazkoa den ibaiak berreskura-tzea. Halere, orain arte ez dugu ikusi ezer egin de-nik asmo hori egia bilaka dadin.



J. L. Encinas (*)

Orain Udal honek legealdi berri bat hastear duenean, gai honi buruzko gure mozioa aurkezteko une egokia dela iruditu zaigu.

Mozio hau aurkezterakoan talde honen asmoa plenoko eztabaida erraztea da, lehenbailehen gure ibaiak berreskuratu daitezen. Legealdi honetan, Deba ibaiaren zein bera hornitzen duten errekaak, biologikoki bizi-rik daudela jakiteak zein ixurketa toxikoei buruz ezer egiten delako bidearen lehen urratsak ematen hasiak direla adieraziko liguke.

Proposatzen ditugun akordioak:

1) Arrasateko Udalak eta 1980. urtean egindako "Deba ibaiaren berreskurapen osorako txostena" aintzakotzat harturik, bera martxan jartzeko beharrezko diren neurriak hartuko dira. Honetarako ere kontutan hartuko ditu gaiarekin zerikusirik

duten erakunde eta talde ezberdinak.


2) Hau gauzatzeko, Udal honek bere ardura-pekora lurretan, ixurketen jarraipen zehatza egingo du, beharrezko zigorrak betearaziz eta halabeharrez, behar adina salaketa publiko eginez, bai enpresa zein besteetan ere salaketa egiterakoan

ixurketen konposaketa eta data zehaztuak izango dira.

3) Ahal den neurrian bazterreratuko du erreka kanalizatzea. Jakina da kanalizazioak egon ondoren, hainbat ibai erabat hondaturik eta erdihilik geratu direla: dirudienez holako neurriek ez dute ezer moldatzen. Honetaz at, ibaiak eta ondorioz bereziki itsututa suertatuko lirateke. Arriskua erabatekoa litzateke eta kalkula ezina, eurite gogor eta luzerik balego.

4) Deba ibaian zehar uztailaren 21ean egin beharreko bizikleta-martxak inguruko talde ekologista ezberdinek antolaturikoa, helburua jaia ospatzeaz at kontzientzia sortzea izanik, Udal honen laguntza izango du, bai dirulaguntzari dagokionez zein antolaketa-trafiko lane-tan ere.


(*) EKiko partaidea



ERRASTI KRISTALDEGIA


**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak**

Olarte kalea 47, behea Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



LILURA -k
zeure moda
diseinatu eta sortzen
laguntzen dizu

Zerkaosteta 5, behea.
Tfnoa: 79 89 72 ARRASATE



Astelehenean jakingo da EAJ eta EA Gobernu Batzordean sartuko diren edo ez.

Gobernu Batzordea astelehenean

J. M. Loiti Mankomunitateko Lehendakari berria?

Astelehenera arte ziurtasunez jakingo ez bada ere, EAJ eta EA prest izango lirateke HBrekin batera Udal Gobernu Batzordea osatzeko. Asteazkenean zehar herriko zenbait komunikabide jakitera eman dutenez, bai EAJk eta baita EAK ere, HBri hainbat baldintza jarri dizkiote gobernuan sartzeko. Azken egunetan, batzuk zein besteak baldintzen negoziaketetan sartuta dabilta. Negoziake-ta horietatik aterako diren akordioen arabera, bai EAK eta baita EAJk ere Udal Gobernu Batzordean sartu edo ez erabakiko dute.

Ziurtasun handiz ezin daiteke esan, baina badirudi EAJk Gobernu Batzordean gehiengoa HBren esku ez izatea eskatzen duela. Horretaz gain, jeltzaleek eurentzat nahi lukete hirigintza batzordea; gainera, Jose Mari Loiti Mankomunitateko Lehendakari izan nahi lukete. HBk jeltzaleen eskakizunei baiezkoa emanaz gero, Jose Mari Loitik

Mankomunitateko Lehendakari izateko aukera guztiak izango lituzke, bailarako Udaletxe gehienetan EAJ nagusi delako.

Gobernu Batzordean sartzearen truke, EAK jarritako baldintzak beste mota batekoak izango lirateke. Badirudi EAK HBri egindako eskakizunak, kalleko hormak ez zikintzea, herrian liskarrak gertatzen direnean kondenatzea, preso familiarrek astero burutzen duten enkartelamenduaren tokia aldatzea trafikoa ez oztotatzeko, eta gauez sortzen diren zaratak nolabait ekiditea izango liratekeela.

Aipatutako hiru alderdien arteko negoziaketan, emaitza onak edo txarrak atera, astelehenean burutu beharreko plenoan osatuko da Gobernu Batzorde berria, legeak horrela agintzen du eta logoratu EEK eta PSOE alderdiek ez zutela gobernu batzordean sartu nahi izan.

Usteak uste

Asteartean Argia astekariak eratuak mahainguruan egon nintzen. Gaia herri prentsa zen. Gonbidatuen artean, Hots, Legazpiko aldizkari aintzindaria, Ttipi-Ttapa nafarra, Goierriarra, Gernikaldeko Deiadar eta Arrasate Press. Bizkaitarrak agertu ez arren, interesgarria izan zen.

Legazpiarrak hasi zirenetik ikaragarri aldatu dira gauzak herri aldizkari gintzan. Adostasuna egon zen mahaian Arrasate Pressekin berarekin ekarritako zenbait aldaketa funtsezkoak eta eredu garriak izan direla aitortzeko orduan: langileen egituraketa, profesionaltasunera joz; publikitate; doantatua eta artikuluak idazteko laburtasun eta erraztasuna. 1988. urtea, Arrasate Press jaio zenekoa, mugarria izan zen han zeudenen eritzian.

Etorkizunari begiratzeko orduan, eritzi zabalduena herri aldizkariak ugalduz joango direla izan zen. Gizarte modernoan komunikatzeko beharri erantzuteko. Beraz, euskaraz sortzen ez badira erdaraz aterako dira. Hortik euskaraz sortzeko garrantzia. Horrekin batera, kalitatean hobetzea, euskal multimediei sortzea eta herri-komunikabideen arteko koordinazioa azpimarratu ziren geroako beharrezkotzat. Guretzat geroa hasita dago.

JOXE ARANZABAL

LEZARAN

ENMARKAZIOAK • LAMINAK • MARGOAK

Biteri Etorbidea 11, ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urburu 24,
Tfnoa: 79 70 39
ARRASATE



La Asuncion ikastetxea hemendik aurrera San Viatorrek erabiliko du.

Asuncion monjei agurra

San Viatorrek ikastetxea alokatuko du 15 urterako

Hirurogei urtetan eskolak eman eta gero, La Asuncion ikastetxeko monjek laster alde egingo dute Arrasatetik. Dena dela aurrerantzean ere, Arrasate Pasealekuan dagoen egoitza ikastetxe moduan erabiliko da San Viator ikastolak hurrengo 15 urteetarako alokairuan esku-ratu du.

La Asuncion ikastetxea 1931ko maiatzaren 28an zabaldu zen. Garai hartan, Arrasatek 5.000 biztanle inguru zituen eta 75en bat neska hasi ziren monjekin ikasten. La Asuncion ikastetxea zabaldu zenean Arrasaten lehen

aldiz eman ziren batxiler mailako ikasketak, baita piano, pintura eta hizkuntzetakoak ere. Ez zen hori monjek ekarri zuten berrikuntza bakarra, Mondragoen ikasleei kuota kobratu zien lehengo ikastetxea ere La Asuncionekoa izan zen eta.

Alde egin aurretik, La Asuncione-neko ikasle-ohiek agurra eskainiko diete ikastetxean dauden monjei, igandean: goizeko 12.30etan meza eskolako kapilan; ondoren txistulari, dantzari eta trikitilarien saioa, eta azkenik luntxa agertzen diren guztientzat.

Baserritar emakumeentzako Gizarte Segurantzza

Aurrerantzean, baserrian lan egiten duten emakumeek baserritarren Gizarte Segurantzako kartila eskuratu ahal izango dute. Horretarako nahikoa izango da lanean baserrian ari direla egiazta-tzea. Beraz, ez dute zertan frogatu beharrik izango beraien ingresoak gizonare-nak bestekoak ala handiagoak direnik. Izenematerakoan milioi erdi inguru ordaindu beharko da.

JAIOTZAK

Torrecilla Hernandez, *Ander*. Ekainaren 22an.
Lete Gijarro, *Jon*. 25ean
Gaston Iturriagoetxebarria, *Leire*. 27an.
Azategi Gonzalez, *Eder*. 27an.
Meabe Iturbe, *Jone*. 29an.
Zabae Elkorobarrutia, *Ander*. 30ean.
Ibarguen Hidalgo, *Jon*. Uztailaren 1ean
Nafarrate Marino, *Alaitz*. 2an.
Manso Bazquez, *Aitor*. 2an.
Vitoria Garcia, *Oihane*. 2an.
Urrutia Oñate, *Mikel*. 3an.
Perez Vazquez, *Urko*. 4ean
Azkoitia Pampin, *Sheila*. 4ean.
Zurbano Romero, *Ander*. 5ean.
Ayala Igartua, *Ruper*. 5ean.
Rodriguez Jimenez, *Iban*. 6an.

EZKONTZAK

Juan Jose Gonzalez & Ana Jesus Angela Perez, ekainaren 22an. Elizaz.
Juan Bautista Aierbe & Miren Dorleta Lasagabaster, 30ean. Elizaz.
Juan Emilio Barrena & Olatz Arkauz, uztailaren 1ean. Zibilez.
Isidoro Reche & Ana Cabezas, 6an. Zibilez.
Joseba Mujika & Mari Karmen Irazabal, 6an. Zibilez.
Jose Ramon Mendizabal & Jaione Arregi, 6an. Elizaz.

BITXIEKIN MAITEMINDUAK

Bitxitegia

Erlojutegia

NAROKI

Erdiko kale, 23 Tel. 79 20 47 ARRASATE

VE ECUADOR

Kontzeziño 2,
Tfnoa: 79 14 06
ARRASATE

beatriz
oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale 11, Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE



Hona hemen iazko Batzar Orokorreko partaideak

AEDko batzar orokorra egin zen

Lokal berria albiste izan zen, besteak beste

Ostegunean, arratsaldeko zazpitan, AEDko batzar orokorra egin zen Monterroneko hitzaldi aretoan. Batzarraren helburua, AEDn azkenaldi honetan izandako gorabeheren berri eman eta aurrera begira dauden asmoak aurkeztea izan zen. Bileran zehar, hainbat lantaldeetako ordezkariak hartu zuten parte, bakoitzak bere taldearen berri eman zuelarik. Ondoren, AEDri buruzko informazio orokorra eman zen. Bertan aipatutako gairik nagusienetariko bat AEDk lortutako lokal berriarena dugu.

Lokal hori, lehen ikastola zena, Pablo Uranga 6an dago, eta bertan, besteak beste, bulegoa eta bilera-gela jartzeko asmoa adierazi zuten. Ondoren, komunikazio-sailaren inguruko gorabeherak aipatu ziren, hau da, ATB eta Arrasate Pressekin elkarte berria egiteko asmoa, etab. Bileraren amaieran AEDren ondoren sortutako antzerako taldeen berri eman, eta aurrerantzean AEDk erdaldunekin eta erdal taldeekin (Al Andalus etab.) izan beharreko jokaera aztertu zen.

S. Andreseko birgaitze proiektuaren erakusketa

Hilaren 18tik 31a arte, San Andres auzoko alkatetzan, Kurtze Txikiko lokalean, auzoa birgaitzeko proiektuaren erakusketa egingo da. Erakusketa honetan, auzoko etxebizitzek planteatzen dituzten arazoaren aurrean eta hirigintza mailan egindako ikerketek eskaintzen dituzten irtenbideak ikusi ahal izango dira.

Dena dela, erakusketa honetan, ezin izango dira ikusi ikerketak San Andres auzoari ematen dizkion irtenbide guztiak, bakarrik etxabea eta bost solairu dituzten eraikuntzak aztertu dira eta. Ikerketaren bigarren fasean, beste erakusketa bat egiteko asmoa dago eta erakusketa horretan, auzoko gainerako eraikuntza zein hirigintza mailako arazoei eman beharreko irtenbideak adieraziko dira.



ARRIARAN

UMEEN JANTZIAK


**Abuztuaren 1. astera arte zure zain gauzkazu.
Merkealdi onak. Bisera bat oparituko dizugu.**

Otalora 29, Tfnoak: 77 05 61 ARRASATE

• Zotz-Motzek lau sari banatuko ditu astero, orri honetan agertuko diren galderei ondo erantzuten dietenen artean. Moztu, bada, txartelak eta erantzunak Arrasate Pressera bidali.

• Uztailaren 16an, Zotz-Motzen sari handiak zozkatuko dira: Renault Clio bat eta bi pertsonarentzako bidaia Kanariar Irlotara.


Zozketa handi honetan parte hartzeko txartelak Zotz-Motzen babesleek banatuko dituzte euren bezeroen artean, erosketekin batera.



• ANSCO argazki makina bat.

IRABAZLEAK


Telefonoa:
**Ma DEL MAR
 MARTIN**
 Afaria:
TERE OKINA
 Erlojua:
**JUANA
 BERRI-OTXOA**
 Argazki makina:
AINHOA LASAGA



• HANDY telefono bat.



• CASIO erloju bat.



Zotz

ADI!




Iturriotz kalea 8, Tfnoa: 77 04 01
 ARRASATE

Erikite

SOINUA • BIDEOA • TB • KOMUNIKAZIOA

Otalora 25, Tfnoa: 77 13 20
 ARRASATE



Maalako Errabala 5, Tfnoa: 79 19 25
 ARRASATE

Motz

LEHIAKETA

Datorren astean,
uztailak 16,
zozkatuko dira
Renault Clio autoa
eta Kanariar
Irletara joateko
bidaia.



GALDERA

Noiz etorri ziren
La Asuncióneko
monjak
Arrasatera?

Izena:

Abizena:

Telefonoa:

• Bidali erantzuna eta zure datuak
Arrasate Pressera: Azoka Kalea 1.



• 2 lagunentzako AFARIA.



• KANARIAR IRLETARA
2 lagunentzako bidaia
astebeterako.



• Renault CLIO auto bat.
(F.F)



KAT IDE
ARRASATE

Kataide poligonoa, Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE



Baskotour
BIDAIAK

Maixu Arano 2, Tfnoa: 79 32 22
ARRASATE



MECA
tailerrak

Araba Etorb. z/g, Tfnoa: 79 50 12 / 79 52 12
ARRASATE



“Cuatrovientos” ko **Zabalatarrak** asko ziren (ikus Fotozaha) eta dexente hazi dira azken urteotan. Jatorrizko hamazazpi seme-alabetatik sei bizi dira. Ekainaren 30ean, ostera, familia osoa -74 lagun- elkartu zen Aramaion. Eguerdian meza Barajuen entzun ostean, Azkoaga auzoko “*Dukiena*” jatetxean bazkaldu zuten. Bapo jan eta kantatu eta gero, bertso ugari entzun zen, hiru bait dira cuatrovientostarren artean tajuzko bertsolariak.



Epelde

Luis Mari Uribesalgo eta **Karmele Azpiazu** Bedoñan ezkondu ziren martxoaren 23an. Zorionak!



Iruñean ezezik, astelehenean Arrasaten ere **San Fermin entzierroa** egin zen. AEDko udalekuetan dabilzan ehundaka gaztetxoak, egunkaria eskuan zutela eta txuri-gorritz jantzita herriko plazan bildu ziren. San Fermin irudirik ez dagoela eta, Maritxuren aurrean kantatu zuten. Txupinazoa jaurti eta gero, kartoizko zezenak abiada handian atera ziren. Zorionez, ez zen zauritu larririk egon.




ARRASATEko UDALA

EUSKARA IKASLEENTZAKO BEKAK

Arrasateko Udalak euskara ikasleentzat bekak ematen ditu. Eskakerak uztailaren 24a baino lehen aurkeztu behar dira. Argibide gehiagorako dei egin 79 09 00 tfnora., edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

Izen
PROPIOAK



Hamaika hilabete egin ditu **Esteban Umerez**, 17, mondragoetarrak Estatu Batuetan. BUPeko 3. kurtsoa ikasi du Pennsylvania estatuko Lancaster herrian (60.000 bizilagun). Denbora horretan bertako familia batekin bizi izan da. Biajatu ere dexente biajatu zuen eta pozik itzuli da. Datorren ikasturtean COU egingo du Institutuan. ▶

● **Miren Murgiondo**, 29, oñatiarra izango da Eskola Politeknikoko idazkari berria, Juanito Leibar ordezkatzuz. Euskal Filologia ikasi eta gero, euskara arduraduna izan zen Eskolan. Azken hiru urteotan Batxiler Orokorreko koordinatzailea.

● **Jesus Sanpedro**, 35, arrasatearra, Mexiko hirian Dermatologia ikasten hiru urte 1/2 eman ostean, itzuli egin da Arrasatera. Valladoliden medikuntza ikasitakoa, ordezkapenak egin zituen Mexikora joan aurretik.

● **Pako Bedia**, 26, futbolista, **Juan Ignacio Errasti**, 24, igerilaria eta **Rakel Kintana**, 23, igerilaria izan dira Euskal Kirol Institutu/IVEFeko lehen promozioko lizentziatu mondragoetarrak.

◀ Hona hemen, Zubiaga bitxitegian egindako *Zotz-Motz* lehiaketako azken sari-banaketara etorritako irabazleak: **Axun Oianguren**, **M.Asun Garai** eta **Judith Muruamendiaraz**. Idoia Herrartek ez zuen etortzerik izan.



OSKAR & MIKEL

TRIKITILARIAK

- Erromeriak
- Dantzaldiak
- Jaiak
- Ezkontzak
- Afariak
- ...

Tfnoak:
(945) 22 95 71
27 53 55

ITSASKI

arrandegia
arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Urbe Auzoa
Arrasate. 79 98 94

Korategi

Kafetegia

Iturriotz 7, Tfnoa: 79 04 67

Arte ederretan barrena

Mondragoe gutxitan nabaritu da Arte Ederretan. Hor ere gauzak, soseguz, baina aldatuz doaz. Egun hauetan bi erakusketa handi daude Monterronen. Pinturazkoa bata eta zeremikazkoa bestea. Artistak, arte-lanean plazerra aurkitu duten mondragoetarrak. Adin eta era guztietako herritarrak. Zu eta gu bezalakoak.

Pintura eta bustingintza irakasle gazte bik badute zerikusirik erakusketa hauekin eta Mondragoen ematen ari diren aldaketekin. Imanol eta Imanol dira, marketing hizkuntzan *Imanol & Imanol*, baina ez bari ezta besteari ere ez zaie marketinga gogoko. Imanol Moreno, 27, pintorea da eta Imanol Aranburu, 28, buzingilea. Lehenak Arte Ederrak ikasi zituen Bilbon eta bigarrena Salamancaraino joan zen Arrasaten ezezaguna zela ofizioa ikastera.

Pintura

Imanol Morenok hiru urte egin ditu pintura-ikastaro hauetan. Aurten, otsailean hasita, berrogeitamar pertsona inguru izan ditu ikasten. Gazteenak 5 urterekin zirriborroak egiten eman du denbora. Zaharrena oraintsu jubilatuta da. Astean bi egunetan, laneguna eta larunbata, eman dute ikastaroa.

Horri esker, hobeto moldatu dira, ze gaztetxoek eta nagusiek aparte egin ahal izan dute lan.

Udalak lokal bat utzi die, Monterron kultur etxeko azken solairua -“ez da ona; argia falta zaio eta dotoregia da”, dio I. Morenok.

Irakasleak ez dauka lan-kontraturik. Udalak jarritako matrikulak kobratzen ditu eta aurrera.

Erakusketan pinturak multzotan banatuta daude. Oro har, inpresionisten eragina somatzen da. “Beharbada nire inposizioa izan

daiteke. Ikaragarri kostatzen zaie sormen lana egitea eta gidaritza eskatzen dute, liburua. Etxean ditudanak ekarri izan ditut eta argia eta koloreak lantzeko oso egoiak iruditzen zaizkidanez, neuk bideratu ditut inpresionisten bidetik”.

Bide horretatik, izan da Velazquezen ‘*La maja desnuda*’ koadroa berregin duenik.

Aurten pintatzeko teknika desberdinak irakatsi nahi zizkien, datorren ikasturtean Mondragoen dauden Galarta bezalako paisajistekin lan egiteko asmoz. Zoritzarrez, I. Morenok ezin izango du asmoa burutu. Lan berria du, Astoren-ordenadore bidezko diseinu eta apainketa egiten eta ez du astirik izango ikastaroa behar bezala prestatzeko. “*Lan berria oso polita da, baina pena hartzen dut, pintura irakasten oso gustora ibili naiz eta*”.

Buztingintza

Imanol Aranbururentzat era honetako ikastaroak ez dira berriak. Aspalditxo



Batek baino gehiagok erosiko lituzke erakutsitako obrak

ikasi zuen ikastaroen egitasmoa eta aurrekontuak presatzen. Aurten, otsailean hasita, hiru ikastaro mota eman ditu, astean bi egunez, hiru orduko txandatan. Goizetan eskola eta ikastoletako 7. mailako neska-mutikoentzat. Bazkalostean tornuaren teknikak helduei eta iluntzean teknika orokorrak, hau ere helduentzat. Jende gaztea hurbildu zaio nagusiki, 18 eta 35 urte bitartekoak gehienak.

Udalak antzinako trengetokiko lokala utzi zien. "Nik urterako programazioa egiten diot Udalari eta onartzen dutena egiten dut. Normalean materiala erosteko aurrekontua egiten diet eta baita irakaslearentzako gastuena ere". Ez du lan kontraturik, beraz.

Lokala kristo bat eginda dagoela dio, teilatua erdi jausten. Baldintza horiek gorabehera, lan polita egin dute buzingile berriek. Monterrongo erakusketan ontzixtoak, hautsontziak, pitxarrak, dorretxoak, baldosa artistikoak, estelak, erloju bat eta zintzilikatutako plater eta ispiluak ikus daitezke. Saldu nahi izanez gero, batek baino gehiagok erosteko moduko jeneroa.

Lan-baldintzak

Ez daude oso pozik lan-baldintzekin. Ez batarena ez bestearena ez dira lokal egokiak. "Lanbide Eskolan lekua soberan dago eta



Ihintz eta Goiatz artista gazteak

haientzat oso proiektu interesgarria izan liteke artistentzako toki bat egokitzea",

diote aho batez.

Mondragoeko Udalak ez du gehiegi egiten, euren us-

tez. "Eta eskerrak Jon Garai dagoela, bestela... Eskolak eman behar dituzu eta ez daukazu ezertxo ere. Dena zuk asmatu eta egin behar duzu. Ikusiko bazenitu nire pintura-liburuek dauzkaten plastoia!"

Ikasleak

"Hona datorren jendeak herrezenera jotzen du. Ia dena eginda eman behar diezu, bestela jai daukazu. Gauza bera Monterrongo parkera atera nahi dituzunean. Ikaragarri kostatzen zaie betiko lau hormetatik kanpo lan egitea".

Mondragoen ez dute Bergaran besteko giro artistikorik ikusten, baina pozik gelditu dira aurtengo lanak eman duenarekin.

"Guai" pasatzen dugu

Ihintz, 10, eta Goiatz, 11, gazteenetarikoak dira, baina badaramatzate urte batzuk Margo eta marrazki eskolan, kortxoazko arbelean jartzen duen moduan. Koadrila berekoak dira eta S. Frantzisko Xabier ikastolako 5. mailan dihardute.

Ihintz orain lau urte hasi zen joaten. "Lehen bi urteetan Churiko irakasle japoniarrekin ikasi nuen. Oso zorrotza zen, perfekzionista. Zertxobait oker edo beste modu batera eginez gero, zuzendu egin behar. Imanolekin askoz hobeto nabil, desberdina bait da". Goiatzek orain bi urte ekin zion pintatzeari, "margotzea gustatzen zaidalako".

Ikastolatik kanpo, biek ingelesa ikasten dute. Horretaz gain, Ihintzek dantza ere bai. Hala ere, ez dituzte faltan sentitzen kaleko giroa eta jolasak, "horretarako ere denbora badugu eta".

Pintore guztiak dituzte gogoko eta oleoa da gustokoen duten pintura mota. Ez litzaieke bat ere inportako nagusi egiten direnean pintore izatea. Egun hauetan Degurixan egon dira, AEDko udalekuetan, pozik baino pozago. Horrela ere bizitzen bait da artista euskalduna.

Begoña
lurrindegia

Drogeria / Jostailuak

Opariak

Gipuzkoa Etorb. 33,

Musakola Auzoa, Tfnoa: 79 03 73

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI 3,

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

ALTUNA

Lurrindegia

bisutegia

drogeria


Maalako Errabala

Tfnoa: 79 14 23


ALTZARIAK

Araba Ibilbidea 20,
Tfnoa - Fax: 79 23 51
ARETXABALETA




ARETXABALETA

Andra Mari Auzunea 1,
Tfnoa: 79 10 97
ARETXABALETA

LASTER...
Mitarte kalea 3an,
**SUKALDE-
ALTZARIAK**

FAGOR 

Banatzaile ofiziala

Bihotzeko ganbarak.

LABURPENA: Gorkaren gurasoek susmo txarra hartu dute Martarekin irteten hasi delako.

2.
atala

Berba egin beharko dok umeakin, Juanmari, neska batekin hasi dok tratuen eta...




Beno, neska, ordua zan honezkero, ez?

Bai, jauna; baina ez kojuaren alabakin!



Zeinekin??!!



BIHARAMONEAN...

Hauek dituk, hauek, jaikitzeko orduak...



Ama, lagunduko nauzu Bitorixara arratsaldean errotera?

Errotera errotera? Zerk emon dosk oraingoan, ba?



B a d a k i k
arratsaldean
aita eta biok
Olitera gozela.
Eta hik, klaro,
betiko moduan
gurago izango
dok etxean
bakarrik gel-
diketie, gu-
rekin etortea
baino.



Begira, Gorka: badakik dana-dalako Marta hori kojuaren alaba dala eta aitak...

Eta neri zer inporta dost zeinen alaba dan?

Begira, tipo horrek aitakin ipini xuan tailerra eta , bera ofizinan, bi urtetan kiebra jo xuan. Orain dala gutxi, gainera, kalera bota xuan hire lehengusua hiru urte lanean egin eta gero.

Begira ama, entendiru leiket aittak amorrua izatea Martaren aittari. Hor-tik aurrera, ez.

Ez zaitetz arduratu Gorkagatik, badakizu mutiko ona dala eta formal ibiliko dana. Eta moqitu qaitezen, berandu qabiltza eta.


Agur eta ostegunerarte orduan. Ondo ibili!

ORDU BATZUK PA-SAUTA ETA TABERNA BATEAN...

Mugituko gara Marta? Hemen ez da girorik lasai goteko.

OLITEN PASEOAN...

Ai ene, ai ene!!!!



... AMAK ORKATILA BIHURTU DU.

ARRASATEN ERE PASEOAN...


Eta birjina baduk...?

Nola esango diot, ba, birjina naizela...?



ATARTEAN...


Orduan zer, animatzen zara? Ez dogu bixok gura ez dogun ezer egingo...



Hau dok suerte txarra izatea, hau! Berriz etxera itzuli behar.



Baina, baina, zer da hau?



Lehenengo, lagundu egingo zaitut etxeraino; gero jasoko ditut traste danak.

JARRAITUKO DU.



Tfnoak: 79 13 55 eta 79 27 27, Arrasate

J.J.
txokolategia
txokolate eta izozki goxoak

Bañez Dk. , Tfnoa: 79 74 12

Jon Iñaki Lasa Gernikan jaio zen orain 27 urte. Bere burua idazletzat ez daukan idazle gazte honen bizitzaren zati handiena Arrasaten pasatu bada ere, orain sei urte Gernikara joan zen bizitzera. Gaur egun, bizimodua euskara irakastetik ateratzen du.

— Gernikara bizitzera joatea, erroetara egindako buelta izan da?

— Gehienbat zirkunstantziak eraman naute. Lana hantxe aurkitu eta bertara joan bait nintzen. Atzera egitea ere izan da, ez sustraien bila, baina bai beste zentzu batean. Hau da, herriska txiki batera joatea eta horrek dakarren guztia: atseginagoa da Arrasate hainbat gauzatarako eta desatseginagoa beste batzuetarako.

— Irakaskuntzatik bizi den idazlea ala idaztea gustatzen zaion irakaslea?


— Nik neure burua ez daukat ez idazletzat eta ezta irakasletzat ere. Eskolak ematea gustatzen zait, baina urteetan nabil eta aspergarri bihurtzen da askotan. Gauza berriak irakasten ditudanean ondo egoten naiz, baina errepikatzen ari naizela sentitzen dudanean nazkagarria da. Idaztea afizioz egin dudana zerbait izan da, besterik ez. Idazteak ez dit dirurik eman, itzulpenen batek akaso.

— Afizioz izanda ere, liburua argitaratu dituzu...

— Asko ez dut idatzi, baina idatzitako gutxi hori gogoratzea ere zail egiten zait... *Ustela sailean idatzitakoak, Andaluziaren bilduma Susan, 83ko literatura produkzioaren kritika* elkar lanean ateratakoa eta espainolez idatzitako *"Sobre las costumbres del Gran Khan y otros apuntes"*, guztiak

Jon Iñaki Lasa

Idazteko motibazio barik



poesia, kritikarena ezik.

— Dena dela, azken liburua aspaldikoa, ez?

— Badira bi urte azken liburua atera nuenetik, erderaz idatzitako hori. Geroztik, publikatzeko xedearekin gauzak idaztea planteatu ere ez dut egin. Neuretzat idazten dut, baina ez dut izugarriko premiari sentitzen. Lagun batek zioen moduan, *"poesia sentitzen duzunean, zertarako ipini paperetan?"*. Bestalde, gaur egun ez dut denborarik literaturari emateko eta gainera mundu horrekin etsita bukatu nuen.

— Zergatik?

— Literatur mundua zi-

kina da. Hasi nintzenezan lagunaren arteko zerbait zen, elkarrekin idatzi, komentatu... beste giro bat bizi zen.

Gaur egun tiroak ez doaz hortik, gaur egun tiroak doaz nor doan zein hitzaldietara euskal idazleen elkarteak subentzionaturik, edo eta nola egin marketing gehiago... profesionalizatu nahi izan da eta gauza askotan beherantz egin da.

— Dagoeneko idazteko motibaziorik ez duzu?

— Hasi nintzenezan, idazteko motibazio ikaragarria nuen. Gaztea nintzen, erromantiko samarra, eta paper gainean ideiak ipint-

zea gustatzen zitzaidan. Lehen liburua hamasei urterekin idatzita neukan... hor ikusten da nuen motibazioa. Orain idaztea zaila egiten zait, beharbada lehen nintzen bezain ausarta ez naizelako.

— Azken liburua gaztelaz, zergatik?

— Erronka handia zen. Hizkuntza aberatsa, polita eta gauzak adierazteko joku handikoa iruditzen zitzaidalako idatzi nuen erderaz eta gainera opari bat egiteko. Maila horretan ondo atera zitzaidan, gustora sentitu nintzen erderaz idazten, baina arazoak izan nituen: argitaletxeek ez zuten argitaratu nahi eta kultur etxe batek argitaratu zuen. Gero zabaldu ere ez zen egin.

— Lehiaketeki zer erizten diezu?

— Ez naiz lehiaketetan parte hartzeko zaletasun handia duten horietakoa. Era guztietan, uste dut egunen batean aurkeztuko dudala libururen bat lehiaketa batera, urtearen amaieran 500.000 pezeta gehiago izateko modu erraza bait da.

— Euskal literatura osasuntsu dago?

— Gauzak egiten dira. *Argiak* eskatu eta gero zentsuratu zidan artikulu batean, esaten nuen herri honetan ez dela gehiegi publikatzen eta ematen duela asko publikatzen dela. Zer gertatzen da? dena egun berean publikatzen dela, hau da Durangoko azokan. Beste argitaratze politika bat egin beharko litzateke, urte guztian zehar, jendea toki emateko.

— Aurrera begira, asmorik?

— Ideiak bai, baina asmo zehatzik ez. Edozein modutan, idatzi, landu eta berri-datzi egiteko denboramordoa behar da eta nik ez daukat astirik.

“
Literatur munduarekin etsita
bukatu nuen”

Santamainako Futbito Txapelketa

Igandean jokatu da azken partidua

Igandean, eguerdiko ordubatean Santamainako futbito txapelketako azken partidua jokatu da, Cameruns

eta Zakil Bar Fronton taldeen artean. 3. eta 4. postua La Banda de Pepe eta Bar Monserratek jokatu dute.

Lau taldeak 22ren arteko onenak izan dira. Aurtengoa, txapelketa honen 11. edizioa da. Urtero bezala irabazleen

trofeoak Arrasateko preso politikoei bidaliko zaizkie. Ea bada igandean jendea Santamainara doan!



● **Cameruns-Construcciones Mendi:** Ezkerretik eskumara. Zutik: Asen, Upe, Kote. Makurtuta: Jara, Mikel, Juanra, eta Ramon.



● **Zakil Bar Fronton:** Ezkerretik eskumara. Zutik: Agustintxo, Fran, Mikel eta Miguel. Makurtuta: Javi, Dioni, Juanan eta Enrike.



● **Bar Montserrat:** Ezkerretik eskumara. Zutik: Aranbarri, Juanjo, Jesus, Donoso, eta Joaquin. Makurtuta: Jose, Raul, Canales, Enrike eta Julian.



● **La Banda de Pepe:** Ezkerretik eskumara. Zutik: Roman, Zurdito, Mena, Errasti, Patas eta Etxi. Makurtuta: Murillo, Josean, Madina, Oroitz eta Kamin.



Lanbide Heziketarako Zentrua
LH1 TITULU OFIZIALA
Ileapaindegia / Estetika

Osasun-Ikasketarako Zentrua
Klinika lag. / Puerikultura
/ Kiromasaia



General Loma Plaza 4, 3.
 Tfnoa: 945 - 23 33 99 GASTEIZ

PODIUMA

ASIER
GUENETXEA

Sprinterra indarrez



Asier Guenetxea txirrindulari atxalbarrak 21 urte dauzka. Aurtengo denboraldia afizionatuen artean egin badu ere, datorrena seguruen profesionalekin batera ibiliko da. Izan ere, Asier sprinterra da, tropela helmugara iristen denean aurrean sartzen den horietakoa. Estatuko txirrindularien artean dagoen sprinter eskasia kontuan hartuta, ez da arraroa talde profesionalak atxabaltarraren atzetik ibiltzea.

Asier Guenetxeari profesionala izateko ametsa gauzatzeak lanak eman dizkio. *"Beno, aurtengoa bizikleta gainean daramadan hamaikagarren urtea da. Une txarrak eta onak pasatu ditut, baina esan daiteke nahi nuena lortzekotan nagoela"*.

Sprinterran bati dagokion gorputza du atxabaltar gazte honek. *"1,75ko altuera daukat eta 70 kilo gorputzaldi olean nagoenean. Ez nuke esango abiada handiko gizona naizenik, potentziaduna baizik. Helmugarako azken luzearen hasieran bizikletaren desarroiloric handiena sartu eta burubelarrari saiatzen naiz helmugara lehenengo iristeko. Sprinterra izaten ikas daiekeen? Nik uste dut jaio egin behar dela eta gero landu, noski"*.

Telebistan ikusita ere, tropeleko sprintek beldurra ematen dute. Irudi

horien aurrean, batek baino gehiagok txirrindulariak erotuta ote dauden ere galdetu izan du. Asierren hitzen arabera ez dira zoroak, bakarrik bere lana betetzera doazen pertsonak. *"Sprinterrentzat azken kilometroak ardua handikoak izaten dira, taldea berarentzat lana egiten ibili delako. Askotan nahiago izaten dut norbaitek ihes egitea sprintean iritsi baino; baina ez beldurratik bakarrik, gehienbat ardua handia delako. Psikologikoki oso gogorra izan behar da sprinterra izateko, bigarren postuak ez du eta, ezertarako balio"*.

Ardurak eta beldurrak izango zituena, baina hala eta guztiz ere Asier Guenetxeak hamaika lasterketa irabazi ditu aurtengo denboraldian. *"Profesionalen artean ez dakit zer egingo dudan. Jende asko afizionatuetan primeran ibilita, gero profesionaletatik ezer egin gabe pasatu da. Bestalderá ere gertatzen da, beraz ez dakit hurrengo denboraldian zer geriatuko den"*.

◆ Leintz Bailarako Itzulia


Besaide Mendizale Elkarteak, iganderako Leintz Bailarako laugarren Itzulia antolatu du. Besaidekoekin mendi-buelta hori egin nahi duenak, goizeko 7etarako Portaloian agertzea besterik ez dauka.

◆ Bi domina atletismoan

Joan den asteburuan, Gasteizko Mendizorrotzako pistetan burututako Euskadiko Txapelketa Nagusian, Jose Antonio Gayk 200 metroko proban zilarrezko domina lortu zuen eta Alberto Iriartek brontzezkoa altuera jausian. Gainontzeko atletek egindako aipagarriena Aitor Arnaizek 200 metroetan lortutako seigarren postua, Jose Antonio Fuentesek ibilketako 20 kilometroetan lortutako boskarrena, Asier Fernandez de Arroiabek disko eta pisu jaurtiketetan lortutako zortzigarrenak, eta 400 metroetan Juan Carlos Martinek lortu zuen seigarren postua izan ziren.

◆ Gatzagara igoera

Maxi-Eroski eta Gatzagaren arteko hamazortzi kilometroak erlojuaren aurka egiteko, igandean 33 txirrindulari profesional bilduko dira, Estatuko talde bakoitzetik hiruna txirrindulari. Txirrindulari profesional ospetsuenak Tourrean badabilta ere, Gatzagan bildutakoak ez dira nolanhikoak: Lazpiur, Garmendia, Gorospe, Ugrumov, Zarrabeitia... Lasterketari goizeko 11.30etan emango zaio hasiera



"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneriaUribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99F
A
N
C
Y

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea 1, Etxabea. Tfnoa: 77 14 24 ARRASATE

Zaintxuri edo tendoien lesioak

Muskulua zaintxuri edo tendoi bidez egoten da hezurarekin lotua; eta tendoi hauek dira muskuluen kontrakzioen ondorioak komunikatzen dituztenak. Muskulua uzkuratzen denean, zaintxuria tentsioan jartzen da; hau oso sendoa da, eta erresistentzia eta malgutasun handia ditu; horregatik, ederki eusten die indar tentsoreei. 30 urte inguruan pertsonaren zaintxuriak malgutasuna galtzen hasten edo beronen estalkia (=vaina) handitzen denean, "tendinitis" dela esaten dugu. Honak, eragina duen inguruan, mina sortzen du edozein



ariketa egiterakoan eta, egin ondoren ere, mantentzen da.

Halere, *kronikoa* baldin bada, mina desagertu egin daiteke ariketa-garaian, berritiro agertzeko bukatu ondoren. Esan daiteke ez dagoela "tendinitis" hau baino kirol-lesio txarragorik tratatzeko.

Honelakoetan, behar-be-

harrezkoa da geldialdia eta primeran etortzen da hotza eta beroa txandaka ipintzea lesioaren inguruan.

Zaintxuriaren handitze edo inflamazioak beraren *etendura* ekar dezake, eta hau zati batena edo osoa izan daiteke. Etendura tendinosoa suertatzen denean, norberak klaskada bat nabaritzen du

min bortitzarekin batera; honetaz gain, ezin izaten dira egin ohizko mugimenduak eta etendako zaintxuriaren ingurua hazi eta ubeldu egiten da.

Etendura partziala denean, beharrezkoa da igeltsuaren bidez mugiezinda uztea; eta etendura osoaren kasuan, ebaketa egin behar izaten da, eta ondoren, inmobilizazioa denboraldi luzearako. Gero, berriz, berrabiltze- edo errehabilitazio-programa egin beharko da gutzit oneratzera lortu arte.

Lesio tendinosoen tratamendu egokiak, garrantzi gutxikoa badirudi ere, ezin bestekoa da kroniko ez bihurtzeko.

Eukeni eta Arantxa

Abantailez betetako leihoak



PVC EDIL


Poliuretano. Bayer

PERFIL THERMIK
Sistemak.

Kalitatea



- PVC eta poliuretanozko leihoak
- Maila goreneko teknologia europarra
- PUR profil-mazizoak
- Leiho isolatzaileak (hotza, zarata, hezetasuna), etab.
- Kalitate/prezio erlaziorik onena
- Leihorik bikainenak



Lantegi eta erakustokiak:

Zentrala: Kataide industrialdea 4. Tfnoak: 77 01 57 eta 77 03 21
Ordezkaritza: Labegaraiaeta z/g, Tfnoa: 76 53 69

Batuta

Marta Izagirre

Marta Izagirre, 26 urteko atxabal-tarra, lanbidez musika-irakaslea da, eta 20 urte zituenetik Arrasate Musikalen ari da solfeoa eta pianoa irakasten. Etxeko giroak eraginda, musika-munduan sartzea erabaki zuen. *"Etxean beti bizi izan dugu musika, amak piano-karrera du eta aita ere abesbatzako kantaria da. Ni, zazpi urte nituela hasi nintzen musika ikasten Aretxabaletan. Ondoren Arrasatera etorri nintzen, eta bertan Mariasun Berezibarrek in egin nituen solfeoko bost urteak eta pianoko hiru. Gero Arrasate Musikalera joan nintzen, eta bertan, pianoa eta armoniarekin segitu nuen"*.

Arrasateko pianoko zazpigarren maila amaitu ondoren, Donostiara joan, eta bertan pianoko zortzigarren eta bederatzigarren mailak eta ikasgai osagarri guztiak atera zituen. Orain hamargarren maila besterik ez zaio falta pianoko goi-mailako titulua lortzeko. *"Oso zaila da Kontserbategiko ikasle ofiziala izan barik pianoko hamargarren maila aprobatazea. Berez, onena nik uste dut, bertan ma-*



trikulatzea izango da."

Pianoaz gain, kantuan ere aritua izan da Marta. Han eta hemen abesbatza ugaritan ibili izan da, hala nola, Almeneko abesbatzan, Aretxabaletakoan, Donosti Ereski-n eta Goikobalun.

Biola ikasteari ere ekin zion, baina ez du instrumentu hori lantzeko astirik izan *"Nire ustez, hobe da instrumentu bakarra behar bezala sakontzea, guztiak nahastea baino. Piano-ikasketak amaitzeko egunean bost ordu behintzat jo behar da, eta ez zaizu astirik geratzen beste instrumenturik ikasteko. Aurrera segitzeko oso inportantea da norberak zer lortu nahi duen jakitea -irakaslea, interpretaria, konpositorea, pedagogoa ..."*

"Nire helburua irakasle onaz izatea da, eta horretan ari naiz burubelarri"

"Hobe da instrumentu bakarra sakontzea, guztiak nahastea baino"

Txio txioak

Arrasate Musikal

Arrasate Musikalen 470 ikasle eta 826 matrikula egin dira 1990-91 ikasurtean. Ikasleetatik gehiengoak neskak dira (%70 inguru). Bestalde, Arrasate Musikaleko hainbat irakasle aurtetik ikastola eta eskola publikoetan ere musika-eskolak ematen ari izan dira, 295 ikasle izan dituztelarik. guztira Bertan 34 irakasle ari dira, 13 finkoak eta 21 ordukakoak. Finko guztiak, bat ezik, emakumeak dira, eta ordukakoak, ostera, gizonezkoak, lau izan ezik. Arrasate Musikalen 18 instrumentu ikasteko aukera dago, eta horrez gain, solfeo, armonia, baleta, kantua eta kantu-korala ere ematen dira.

Ikasle kopururik handiena solfeo ikasten ari da (281). Instrumentuei dagokienez, berriz, pianoa (99), akordeoia (83), eta biolina (47). Beste batzuk arrakasta txikiagoa dute, adibidez, tronboia (2), tronpa (4), tronpeta (4) eta kontrabajoak (4).

Bukatzeko, bazkideak aipatuko ditugu. Guztira 700 bazkide inguru izango dira, horietako 470 ikasleen gurasoak direlarik.



BAKAILO ETXEA

Makailoa eta beroni buruzko produktuak

Makailoa, kroketa eta piper kazolak prestatzen ditugu

Mondragones 7, (Azoka ondoan) Tfnoa: 79 93 07 ARRASATE

SANIDES

Parasitoel aurre egiteko
Intsektu narrastriak akabatzeke,
arratoiak barne

URTEBETEKO GARANTIA

Erguin kalea 11, Bis. 3. ezk. Tfnoa: 79 22 81

Alfabetizazioaren naziorteko urtea dela eta...

Famili eta gizarte-heziketarako Zentrua

Helduen hezkuntza arloan, orain dela 18-20 urte sortutako Zentru bat aipatu behar da: Famili eta gizarte-heziketarako Zentrua.

Kutxaren babespean dago. Behar zuen edonori kultur prestakuntzaren aukera eskaintzeko asmoarekin sortu zen.

Hasieran etxeoandreei bereziki zuzenduta bazegoen, gaur egun bere ekintzetan parte hartu nahi duten gizon eta emakume guztiei irekita dago. Bere helburua zentzu kritiko, sortzaile eta parte hartzailea piztea da.

Gipuzkoan dauden beste horrelako zazpi zentruekin

koordinazioan lan egiten du, asmoak eta lanak elkartrukatu, nahiz eta bakoitzak bere autonomia gorde.

Famili eta gizarte-heziketarako Zentruak honelako arloak aztertzen ditu:

- Hezkuntz arloa: norberaren ezagupen eta aberastasunerako gaiak sartzen dira arlo honetan, hala nola, kultura orokorra, filosofia, euskara, psikologia...

- Ekintza artistiko eta plastikakoen arloa, hala nola, puntua, gantxiloa, joskintza, eskulanak, pintura, bustigintza, sukaldaritza...

- Aisialdia eta denbora libreko arloa: irteera eta ibilaldiak.

1990-1991 ikasturtean,

urria eta ekaina bitartean, programa hau burutu da: arratsaldeko 3.30etatik 6.30etara:

- Astelehena: eskulanak.
- Asteartea: kultur zikloa.
- Asteazkena: psikologia (gaiak taldeak berak jartzen



ditu, partaideen interesen arabera).

- Osteguna: puntua, gantxiloa.

- Ostirala: sukaldaritza.

Trimestre bakoitzean ikasleek 3.800 PTA ordaindu dute, nahi izan dituzten ekintzetan parte hartzeko askatasuna edukiz.

Arratsaldeko 6.30etatik aurrera, sexualitate, sukaldaritza, etab. etako ikastaroetan zenbait neska-mutilek ere parte hartu dute.

Famili eta gizarte-heziketarako Zentrua Santa Teresa auzoan dago; bere telefonoa 79 04 59 da, eta arduraduna Jone Astigarra-ga.

Klarion taldea

HIRU

UTILAJEAK

- **Doitasunezko mekanizazioak, plano eta langileen arabera**
- **Fresatzeko makinak**
- **Zenbakizko kontrola**
- **Mekanizazio-zentruak**
- **Tornuak**
- **Artezko makinak, etab.**

Zaldipe kalea 10, ARRASATE

Tfnoak: 79 67 80 / 79 05 61

Posta kutxa 95. Telefaxa: 79 80 97

Goian Industrialdea. 24 Apartatua

Tfnoa: 945; 45 54 28 / 45 54 54 / 45 54 53

Telefaxa: 45 54 74, 01170 LEGUTIO



Argazkia: Institutuko argazki ikasleak

G

aztaroa, oi gaztaroa!
Zein aro eder eta oparoa!
Hankak arinak eta, burua zoroa
Etortzen kostatzen eta, nahi baino azkarrago hoa.
Gaztaroa, oi gaztaroa!
Askatasuna begien aurrean eta,
ezin eskuetan hartu.

Munduko jabe egin nahirik, kaiola tristetan sartu.
Gaztaroa, oi gaztaroa!
Zergatik ote hago preso?
Guztiek bere egin nahi hautelako, akaso?
Gaztaroa, oi gaztaroa!
Behin bizi eta hil arte gogoan,
arren, ez betiko joan.

100 SERIEKO ROVER BERRIA

ROVER HANDIEN INDAR GUZTIA.


Miresgarria, 100 serieko Rover berria. Txikia, baina Rover handien indar guztiarekin. Teknologiarik aurreratuena du bere K serieko motore berrian -16V GTi-an- aleazio arinaz eginga 95CVko indarra eman diezakeena.

Eta zuri, eskatu nahi diozun guztia. Zeu bezain aparta du bere ekipamendua.

Ausartu eta helduiozu. Rover berria da 100 x100. *



100 SERIEKO ROVER BERRIA
ROVER 100 x 100



* Azken salneurri gomendatua. BEZ eta garraio-gastuak barne. Ekipamendua: Erloju digitala. Atzerantzko ispihutsa eskuinean ere. Bira-kontadorea. Ixte zentralizatua. Aleaziozko lliantak. Aurreko lehiotzen jasagailu elektrikoak. Atzean spoiler-a. Atzean ere segurtasun-uhalak. Esarlekuko deportiboak. Dolikuntza lunbarra. Atzeko eserieku toleagarria 60/40.



Eguzkipean

Gaur goizean irratia piztu eta uztaillaren 6a bizidugula adierazi digu irratiak: eguerdiko 12etan San Fermin bezperako txupinazo sonatua. Lagunok, berriz, 10etan egin dugu tril kalean; bizikletak hartu eta norabait joateko plana egin dugu. Arratsaldean Aramaixora joateko asmoa agertu dugu eta gabez juerga egitekoarena ikusi behar.

Eguraldiak ere lagundu digu eta denok pozaren pozez abiatu gara Eskoriatza aldera, Landara joateko. Eskoriatza San Pedruak ospatzen ari dira: makina bat txapligu jaurti dituzte; musika ere tripili-trapala. Goizeko bihararona "usaintzen" genuen,



Atxarteko aldapa nagusian, bizikletariak


bizikletari eragiten genion bitartean. Denok izerditan blai beroaren eraginez; bero handia egin du, benetan! Arlabandik igo eta berehalaxe iritsi gara Landa aldera. Jende mordo uretan eta bazterretan. Aurrera egitekotan geratu gara, baina horrelakorik ikustean, Bilerlera joatea

pentsatu eta Bilerleko urtegi (Santa Engrazia) jo dugu; bainua hartu, zeozer jan eta berriro be, bizikletan abiatu gara. Oraingoan Otxandiorako bidea hartu dugu eta herrira heldu orduko eskumatar hartu eta lehengo "bide gorri"tik Albinara heldu gara. Iturrian ur apur bat edan, in-

darrak berritu eta Kurtzeta gainera iristeko aldapa aurrez aurre hartu dugu. Goitik beharokoa erruz egin dugu eta arratsalde erdian Aramaion izan gara: Lorentzok begotik sakatzen zuen. "Aurki Añobarri inguruko gerizpe ederretan murgiltzeko aukera izango dugu", neure arteko gogoetan aritu naiz, eta polito polito... Arrasaten plantau gara.

Bizikleta eguna deituko neuskio honi, egun aparta egin digu eta. Orain bizikletan gertaketan hasi beharko dugu, oporraldia gainean daukagu eta beroak harrapau ez gaitzan, aurretik prestatu beharko dugu. Abuztuan besterik izango da.

K. U.



Asier Guenetxea

SASIAIN sport

Errepide eta mendiko bizikletak

AUKERA HANDIA

Deba Garaiko bizikleta-denda





Zaraia 4, Tfnoa: 79 77 63
ARETXABALETA

BRANKA

taberna

Zarugalde kalean girorik onena

Zure zapatila berriak
LORAMENDIn.



San Andres auzoan...

LORAMENDI  KIROLAK



Aste gazte

Famili harremanetan neskek jasaten duten be-
reizkeriaren adibide batzuk:

- Etxetik irten eta sartze-
ko orduetan, ez dute anaien
besteko malgutasunik.

- Beren gastuetarako ez
zaie ematen mutilei besteko
dirurik.

- Haien anaiek eta aitek
egiten dituzten etxeko lanak
egitera behartuta daude.

- Neskek beti etxean
egin behar dute lo. Mutilen
kasuan arau hau ez da hain
estua.

"El Fungible" aldizkaria.

Informazio turistikoa

• Oporretan nora joan
pentsatzen ari bazarete eta
informazio turistikoa behar
baduzue, Informazio Bule-
goan aurkituko duzue.

Lanpostuak

• Gasteizeko Udalak ho-
nako lanpostu hauek bete-
tzeko deialdia egin du:

- Eskola-Kontseilu tek-
nikari bi.

- Kongresu eta Turismon
espezialista.

- 3 arkitekto.

- 2 aparejadore.

- 2 albaitero.

- 3 gizarte-laguntzaile.

- Okupazio terapeuta.

- Fisioterapeuta.

- Eragintza, enplegu eta
heziketari 3 teknikari.

- Ikasketa zerbitzurako
teknikaria.

- Herrilan laguntzailea.

Instantziak aurkezteko
epea: uztailak 15.

• Ondarroako Udalak
udaltzain lanpostua betetze-
ko deialdia egin du. Instan-
tziak aurkezteko epea: uz-
tailak 18.

• Debako Udalak kontu-
hartzailatza - Gordailuzain-
tzan aritzeko Erdi Mailako
teknikari lanpostua betetze-

ko deialdia egin du. Epea:
uztailak 24.

Bekak

• Madrilgo Unibertsitate
Politeknikoan doktoregoan
egiteko bekak. Eskatzaileak:
lizentziatuak, injineruak eta
arkitektoak. Dirulaguntza:
hileko 121.000 PTA. Epea:
uztailak 23.

• Indietako Artxibategi
Orokorreko gaiei buruzko
ikerketari historikoak egiteko
bekak. Eskatzaileak: lizen-
tziatuak. Dirulaguntza:
1.200.000 PTA. Epea: uz-
tailak 26.

• Zezentzaletasunari
buruzko ikerketari egiteko
bekak. Eskatzaileak: goi
mailako tituludunak. Epea:
uztailak 31.

Gazte - Txartela

• Dagoeneko, Gazte -
Txartela eskuratu duzuenak
asko bazarete ere, falta zare-
tenei oporrak baino lehen

lortzeko gomendatzen di-
zuegu. Baldintzak badakiz-
kizue: 15-25 urte, NANA
aurkeztu eta argazki bat
ekarri; bi urtetako iraupena
eta doan.

Lehiaketak

• Mendaroko jendaurreko
II. margo sariketa. Uztaila-
ren 25ean. Lanen zigiladura:
goizeko 9etatik 10etara.
Teknika eta formato libreak.
Sariak: 50.000 PTA, 40.000,
30.000 eta 10.000 PTAko
akzesita 14 urtetik beherako
onenari.

• Urretxuko III. Ipuin
Lehiaketa. Gazteleraz. 2
maila: a) 15-18 urte, b) 19tik
aurrera. Gai libre. Sariak: a)
15.000, 10.000 eta 5.000
PTA, b) 30.000 eta 10.000
PTA. Epea: uztailak 26.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



ARRASATEko UDALA

UEUra JOATEKO BEKAK

Uztailaren 15etik 27ra bitartean Iruñean Udako Euskal Unibertsita-
teak antolatzen dituen ikastaroetan parte hartzen duten arrasatea-
rrentzat bekak ematen ditu Arrasateko Udalak. Eskerak uztailaren
24a baino lehen aurkeztu behar dira. Argibide gehiagorako dei egin
79 09 00 tfnora. edo etorri Udaletxeko Euskara Zerbitzura.

ETXEBIZITZAK

- **Baserría alokatu edo erosiko genuke Deba Garaian.** Deitu 79 75 96 tfnora. Jon.
- **Lokala alokatzen da Uribe auzoan.** 35m² eta erabiltzeko prest. Informazioa: 79 84 37 tfnoan. Dei egin astegunetan goizez, 9etatik 12ak arte.
- **Aretxabaleta edo Arrasaten etxebizitza alokatuko nuke.** Dei egin 79 10 60 tfnora.
- **Gela bat bi oherekin olokatzen da.** Dei egin 79 07 73 tfnora.
- **Hiru irakasle etxebizitza alokatu behar dugu.** Tfnoa: 88 28 63.
- **Andra euskalduna behar da etxeko lanak egiteko.** Goizez 8etatik 1a arte. Tfnoa: 79 50 41.
- **Eruguinen etxebizitza salgai.** Amueblatua, gas naturala, 3 logeala, egongela, sukaldea, bainugela, 2 terraza. Eguzkitsua, bista ederrakoa. Garajea aukeran. Tfnoa: 79 93 42.

- **Edozein lan egiteko prest nago,** nahiz eta hispaniar filologian lizentziatua izan. Yolanda. Tfnoa: 79 76 90.
- **Fisikarako eta kimikarako maixua behar da.** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- **Neskak etxeko lanak egin eta umeak zainduko lituzke.** Tfnoa: 79 99 17. M^a Jesus.
- **Fisikarako eta kimikarako maisua behar da** (Injinerutza 1. mailarako). Dei egin 79 42 70 tfnora. Esteban.
- **Neska prest lanak egiteko.** Dei egin 79 49 05 tfnora.
- **Klase partikularrak ematen dira (Fisika, Kimika eta Matematika).** Dei egin 77 13 95 tfnora.
- **Andra euskalduna etxeko lanak egiteko edo umeak zaintzeko prest.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Klase partikularrak edo taldetan ematen dira** (Espainiar hizkuntza, literatura, latin eta ingelesa) Tfnoa: 79 10 61. Goio.
- **Euskara, ingelesa eta OHOKO klaseak ematen dira.** Tfnoa: 79 90 08.

- Dei egin 8etatik aurrera 79 77 85 tfnora.
- **Bi hilabete t'erdiko txakurkumeak salgai.** Setter arrazakoak. Interesatuak dei egin 79 09 70 tfnora.
- **Bi gela bikoitzeko kanping-denda egoera onean salgai 27.000 PTAn,** abanxe handiz, pasilo eta guzti. Dei egin 79 40 44 tfnora.
- **Izokitegiak erakusteko bitrina, Salbat labea estrenatu barik eta jogurtak eta esnea erakusteko bitrina salgai oso prezio interesantean.** Dei egin 79 23 58 eta 77 00 91 tfnotara. Rosi.
- **Lau edo bost lagunentzako kanping-denda salgai,** aluminiozko tuboekin. Tfnoa: 78 04 89. Arriaran.
- **Seat 127a salgai, SS-M, errebisioa pasatua, extra batzuk ere baditu.** 100.000 PTA. Tfnoa: 76 61 05.
- **Paseoko bizikleta bi salgai ditut 15.000 PTAtan bakoitza.** Dei egin 79 99 82 tfnora. arratsaldeko 8etatik aurrera.
- **Ur berogailua egoera onean salgai.** Tfnoa: 79 97 72.

LANA

- **Cobol-eko klase partikularrak hartuko nituzke.** Dei egin 15.30etatik 17.30etara. Tfnoa: 77 08 15. Mikel.
- **Tailer batean lan egingo nuke mekanika aprendiz moduan.** Tfnoa: 79 96 10.
- **Ileapaindegi batean egingo nuke lan.** Ikasketak bukatu ditut. Tfnoa: 79 56 36.
- **Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke.** Dei egin 79 13 26 tfnora. Maite.
- **Euskara eta ingeleseko klase partikularrak ematen ditut.** Tfnoa: 79 21 56.

SALEROSKETAK

- **Egoera onean dagoen Visa autoa salgai.** Aparteko gauza asko jarrita: lainoaren kontrako argiak, sabaian leihoa, etab. Tfnoa: 79 28 12.
- **R-14 GTL berebila salgai, ITVA pasatua.** Prezioa 125.000 PTA transferentzia barne. Dei egin 8etatik aurrera 79 58 98 tfnoa.
- **Seat Ritmo salgai.** Dei egin 79 73 02 tfnora.
- **Orbea mendiko bizikleta egoera oso onean salgai,** llanta, piñoi eta ardatz berriak. Prezioa 40.000 PTA. Dei egin egunero 22.00etatik aurrera 79 54 65 tfnora. Garikoitz.
- **Neskentzako paseorako Peugeot bizikleta salgai.** la berria. Dei 79 13 49 tfnora. Maria.
- **Egoera onean dagoen hozkailua erosiko nuke.**

DENETARIK

- **Urrezko eskuturrekoa galdu nuen,** harri urdin eta guzti, maiatzaren 3a eta 4a bitartean. Mesedez, aurkitu baduzu dei egin 79 28 80 tfnora. Eskertu egingo da.
- **Argazki makina eramateko poltsa bat aurkitu genuen Udalan.** Berreskuratzeko dei egin 79 52 80 tfnora. goizez (Eduene) edo 79 52 80 tfnora. arratsaldez. (Miren).
- **Txakur txiki bat galdu dugu.** Marroiada. Aurkitu baduzu dei egin mesedez 79 14 29 tfnora. Ander.
- **Nortasun Agiria galdu dut.** Manuel Ignacio Rebollo-ren izenean dago. Aurkitzen baduzu, deitu Arrasate Pressera.



ARRASATEN HILDAKOAK



- Eusebio Lopez Allega,
ekainaren 24ean. 81 urte
- Delfina Gonzalez Rubio,
ekainaren 27an. 81 urte
- Ma Urban Larrañaga Mugerza,
ekainaren 30ean. 89 urte
- Eusebio Errasti Arriola,
uztailaren 2an. 76 urte
- Rufina Martin Beade,
uztailaren 4ean. 88 urte
- Joaquina Fernandez Blanco,
uztailaren 5ean. 87 urte
- M^a Jesus Bolrios Ortiz,
uztailaren 6an. 83 urte
- Monica Aseginolaza Olanar,
uztailaren 8an. 80 urte

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


.....

Azoka kalea 1, 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Luzia Otadui Baserritarra



- **Ardiak ala behiak?** Behiak, lan gutxiago ematen dutelako.
- **Udala hurrez ala ardiz beteta?** Biak, baina neurri batean.
- **Plaza ala supermerkatua?** Supermerkatuan ere gauza onak egongo dira, noski, baina nik nahiago dut plaza.
- **Autoa ala lanroberra?** Baserrian bizi garenontzat lanroberra erosoagoa da.
- **Zezenak ala pilota partidua?** Pilota partidua.
- **Gazta egin ala ardiak zaindu?** Gazta egin.
- **Oporrak Udalan ala Benidormen?** Benidorm-en, Udalan egoteko urte guztia daukagu eta.
- **Meza ala paseoa?** Paseoa oso gustatzen zait, baina aukeratzekotan, meza.
- **Bertsoak ala trikitixa?** Biak. Bata zein bestea izugarri gustatzen zaizkit.
- **Trena ala hezgakina?** Hegazkinean ez naiz inoiz ibili, baina aukeran jarriz gero, beroi hartuko nuke.
- **Arzak-en bazkaldu ala Maria Cristinan lo?** Arzak-en bazkaldu, lo etxean ere ederto egiten da eta.
- **Perretxiko-tortila ala angulak?** Angulak, perretxikoak sarri jaten ditugu.
- **Bizi, kalean ala baserrian?** Baserrian. Askoz ere lasaiago bizitzen da eta.
- **Brixkan ala musean?** Brixkan.
- **Egunpasa Donostiara ala mendira perretxiko bila?** Donostiara hobe.
- **Bazkaltzeko ura ala ardoa?** Nik urardoaz bazkaltzen dut. Biak nahastuta gustatzen zaizkit.
- **Arropak erositakoak ala jostunak eginak?** Erositakoak, normalean dendako arropak erabiltzen ditut.
- **Puntoa ala gantxiloa?** Puntua.

Igarkizunak

Landareak

1. Loretan zuri txikitari berde, mutiletan gorri aguretan beltz. Igarki ezetz!
2. Anaia asko ditut ni bezain hori, bizi ematen diogu ereiten gaituenari.
3. Zuria izaten nuen jaiotza berdea eta gorria bizitza, eta jartzen ari naiz beltza prestatuz neure heriotza.
4. Beti ari den arren hazten eta loditzen, ez da bere lekutik sekula ere mugitzen.
5. Burua dut biribil ez dut aurpegi edo kopeta, nire gorputza dabil ale txuriz beteta.
6. Berde jaiotzen eta belztu gaztaroan, zuriz naute janzen erre aurretik ahoan.
7. Bada landare bat ezin arragoa, eztarrian behera ordea eme-emeki doa, non dagoen jakiteko bisitatu Nafarroa, han bait dago frantsesporru edo.....

Soluzioak:
1. Masusta, 2. Garia, 3. Masusta, 4. Zuhaitza, 5. Baratxuria, berakatza, 6. Ta-
bakoa, 7. Esparragoa

**Carrión
música, s.a.**

**Musika-tresna guztiak.
Probetarako aretoa.
Etengabeko eskaintzak.
Zerbitzu teknikoak. MIDI
informatikako
espezialitatea.**

Manuel Iradier 20, GASTEIZ, Tfnoa: 945 - 23 07 49

**“EDERTU”
ileapaindegia**



San Andres auzoa 79 04 28



Zabala "Cuatrovientos" familia, baserrian. 1926

Baserriaren izena *Unzuetagaina* zen, baina "Cuatrovientos" goitizenez ezagunagoa. Familiak ere ezizen hori

zeraman eta darama.

F. William argazkilaria profesionala baserrian agertu zenean, beren arroparik dotoreenak jantzi, ondo atondu eta argazki paregabe hau ateratu zuten. Amandrearen konpainian, hamasei lagun elkartu ziren.

Aita Bolibarkoa zen. Ama, berriz, bertakoa. Denetara hamazazpi seme-alaba eduki zituzten. Orduan hamahiru zituzten. Petra, Frantziska eta Agustin hilda eta gazteena, artean jaiotzeke. Fetxa haietan, hain zuzen, ama haurdun zegoen. Denen adina eta jaiotegunak gogoan ezin gorde zituela eta, guztien datuak zituen zerrenda eraman ohi zuen aldean aitak.


Unzuetagaina edo "Cuatrovientos" baserria Gesalibar auzoan zegoen, Gipuzkoa eta Arabako mugan. Patata eta ardo estraperloa

egiten zen dexente, Araban zerga gutxiago ordaindu behar izaten zen eta. Bizkaitik eta Gipuzkoatik etortzen zitzaizkien erosleak. Jaioberriak Aramaioko erroldan sartzen zituzten. Eskolak ere Aramaion hartzen zituzten.

Zutik ezkerretik eskuinera, **Felisa, Juli, Julian, Patxi, Benita, Bixente, Joxe, Angel, Pedro, Diego** eta **Krutz**.

Jarrita, **Maria Belategi** amandrea, **Paula Madina** ama eta **Patxi Zabala** aita. Euren aurrean dauden umeak **Martzelino** eta **Luis**.

**PUB
HAIZEA**




ENARA
OSAGARRIAK


Maalako Errabala 21
20500 Arrasate
Tfnoa: 79 62 32



Udaleku Irekiak (AED)

Egile = Ainhoa Zenigao hain dia Funtel taldea = Zaldi beltak
AED ELKARTEA
 Pablu Uranga 4 behea Tel 79 54 46
 20510 ARRASATE - GIPUZKOA

NON DAGO NURIA? 




2. maila

ARRASATE PRESS ZEURE ETXEAN DOHAIN JASO NAHI BADUZU
 EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN

IZEN-DEITURAK.....
 HELBIDEA.....
 HERRIA.....

Azoka kalea 1, -ARRASATE- Tfnoa: 77 08 15



77 08 15

Ezinegonean

Ezinegonean
zuhaitzen adarretan kateaturik
iraun duten hostoek
lur hotz eta beltzarengana
jotzen dute,
nik aldioro
zurengana jotzen dudan antzera.

Udaren beroak ez gaituela
nahi aina ase eta
udazkeneko haize urdinduan
babesten gara,
haren beso luzeek
lur maitean pausa gaitzaten.

Lurraren umela dastatzen dugu,
haren zapore gozoa bihotzean gorde
baina
iadanik ez gara
aire zabalean ibiltzeko aske,
eta izan nahi dugu...
ez garelako adarretan bizitzeko jaio
ez eta lur emean sustriak botatzeko
baizik eta
kurloien hagaldi dantzarietan
zeruaren zabala zeharkatzeko.

Udazkena dagoeneko
gainean dugu maitea,
baina gu,
zuhaitzetako hosto ximelok,
libre izateko jaioak gara.

Mikeldi Bengoa

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa:79 16 04




J. M. Heriz

**Konpromezurik gabeko
aurrekontuak**

Otalora Lizentziatua. Arrasate

15 ASTELEHENA

- 20.00 Teletestua. Era guztietako iragarki eta abisuak.
 21.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albistegia.
 21.20. Erreportaia. Bezperan jokaturako Dorletako Ama txirrundulari proba.



- 21.40 **Saltsa-maltsan**. Jaione Olabek, Zapua saltsa amerikar erara prestatuko du.
 21.40 **Berriak**. (errepikaldia)

16 ASTEARTEA

- 12.00 Teletestua.
 13.00 **Berriak** (bezperakoa)
 13.20 **Saltsa-maltsan** (bezperakoa)
 13.30 **Berriak** (errepikaldia)

17 ASTEAZKENA

- 20.00 Teletestua. era guztietako iragarki eta abisuak
 20.30 **Ikumika**. Haurrei zuzendutako saio honen azken emanaldia. Programa berezia, beraz.
 21.00 **Berriak**, Koldo Rodriguezek aurkeztutako albisteak.
 21.20 **Zenbat buru, hainbat aburu**, Jose Mari Velez de Mendizabalek zuzentzen duen mahaingurua. Gaia: Zezenak.



22.10 **Berriak** (errepikaldia)

18 OSTEGUNA

- 12.00 Teletestua (bezperakoa)
 12.30 **Ikumika** (bezperakoa)
 13.00 **Berriak** (bezperakoa)
 13.20 **Zenbat buru, hainbat aburu** (bezperakoa)
 14.10 **Berriak** (errepikaldia)

19 OSTIRALA

- 20.00 Teletestua
 21.00 **Berriak**, ATBren informatiboa, Koldo Rodriguezek aurkeztua.
 21.20 **Erretratoa**, J. R. Elortzak zuzentzen duen elkarriketa. Gonbidatua: Juan Arregi, "Axeri", Hegoameriketan misiolari egondako fraile mondrauetarra.



- 21.50 **Musikantoi**. Oporretan joango zaizkigu Patxi, Pepe, Asier eta Mikel ere. Hori dela eta, datorren astekoa saio berezia izango dugu. Martxoaren 22an Arrasate Press-ek antolatutako jaialdiari buruzko erreportaia zabala eskaintzeaz gain, festa giroz jantziko dute estudioa.

Berriak (errepikaldia)

20 LARUNBATA

- 12.00 Teletestua
 13.00 **Berriak** (bezperakoa)
 13.20 **Erretratoa** (bezperakoa)
 13.50 **Musikantoi** (bezperakoa)
 14.30 **Berriak** (errepikaldia)



ARANBURU COTEMAR

Garraio agentzia



Zalditze 3, Tfnoak: 78 52 34 / 79 53 99 ARRASATE

ZUBIZARRETA TAILERRAK



Gipuzkoa Etorbidea 22
Tfnoa: 79 15 65 ARRASATE



Zurgin Kantoi, 2 Tfnoa: 79 20 04 ARRASATE




77 08 15

Telebegi

Aste honetan bertan, ATBn nengoela, telebista katea pribatuak ez zirela oraindik Arrasatera heltzen jakin izan nuen. Eta zati batean ez ditugula gure artean izango, gainera. Eta neure buruari galdetu diot ea atzerapena galera edo irabazpidea ote zen gure herriko teleikusleentzat. Batek baino gehiagok pentsatuko du, agian, ugaritasuna eta aukera anitza beti direla onuragarri. Baina telebista katea pribatuek lehengo kateetan eragin dutena, konpetibitatea eta iragarkiak harrapatzeko lehia baino ez da izan. Eta hori ez da lortzen saio kultural sakonagoekin edota albistegi ausart eta osatuagoekin, ez; oso alderantziz baizik: teleazoketan erositako azken kaxkarkeriarekin eta inola ere ez jendearengan zalantza edo hausnarketa eragin dezaketeneekin. Gauza arinekin, alegia. Telebista ez pribatuek badute jirabira horretan erortzeko arriskua. Erori ote dira honez gero?

Koldo Rodriguez



Azken boladan, konturatuko zinetenez, ATBren emanaldiak grafismo ugariz jantzita azaltzen zaizkizue. Grafismo horiek, **Mikel Rodriguezek** egindako lanaren ondorioa dira. Etorkizunean ere, gure asmoa irudiak apaintzen jarraitzea izango litzateke; Mikelen laguntzarekin, noski. 24 urte, Arte Ederretako ikasketak burutu zituen Madrilén. Sei hilabete inguru daramatza ATBn.

◆ Ez dut uste Mondragoeko euskalkia desagertu egingo denik, baina aldatu bai".

Jerardo Elortzak
Berriak saioan.

◆ Komunikabideak direla, erderaren indarra dela, edota euskara batuaren eragina dela, ez dago lehen moduan urteetan zehar euskalki berdinarekin jarraitzerik".

Jerardo Elortzak
Berriak saioan.

Telebelarri



Argazkiko hiru neska-mutiko hauek bezala, beste askok ere izugarri disfrutatu dute *Bapirulauke* saioarekin. Irailetik jo eta ke ari izan dira Aitor Mendizabal, Betirtze Iñurrategi, Unai Torres eta Agustin Olaizola, programa gogoz prestatzen. Badoaz, ordea. Eta ume guztiei agur beroa eman asmoz, datorren asteazkenean *Ikumika* saio berezia prestatuko dute. Mila esker egindako lanagatik, laukote!



ARIES

Martxoaren 21etik
Apirilaren 20ra


Ekintza guztien zergatia bilatu nahian ibiliko zara. Guztion logikak ez duela berdin jokatzeko ulertu beharko zenuke horrenbeste haserre ez sortzeko. Mendi gailurrera igo beharko zinateke arazoak beste ikuspegi batetik ikusi ahal izateko.



LEO

Uztailaren 23tik
Abuztuaren 23ra


Sekulako martxa izango duzu, Leo. Parrandaz parranda mugituko zara giro horretan gustora sentituko zarelako. Biharamonak ere halakoak izango dira, baina beste batekin pasako zaizun esperantzarekin egongo zara.



SAGITARIUS

Azaroaren 23tik
Abenduaren 21era

Egonezina eta jakinmina nagusituko dira zuregan. Hainbeste gauza bizi izango nahi duzu eta ezina suertatuko zaizu. Patxadaz harezazu, bizimodu osoa daukazu aurretik eta. Hobe da astiro eta seguru bizi izatea, agudo eta zuloan baino.



TAURUS

Apirilaren 21etik
Maiatzaren 20ra

Nahi duzuna, ahal duzuna hobeto esanda, egiteko moduan izango zara, ez zarelako aldamenekoari begira ibiliko. Garbi daukazu zer nahi duzun eta hori gauza ona da. Eguraldi aldaketan aurrean argi ibili katarroren bat harrapa dezakezu eta.



VIRGO

Abuztuaren 24etik
Irailaren 23ra


Hamaika aldiz pentsatuta gero, maiteminduta zaudela konturatuko zara. Emozioak berezkoak izaten dira, Virgo, eta bere ildotik joan daitezeko utzi behar zaie. Egoerak hainbeste ez analizatzen saiatu, gurpil zoroetan baino ez zara ibiltzen eta. Burukomina.



CAPRICORN

Abenduaren 22tik
Urtarrilaren 20ra


Horrenbeste burukomin ekarri dizkizun harreman horrekin duzun buruhaustearekin bukatzeko ordua da. Benetan maite zaitu pertsona horrek eta zu zeu ere bera maitatzeko gai zara. Ez egon aurrera eta atzera begira. Bizi ezazu oraina.



GEMINI

Maiatzaren 21etik
Ekainaren 20ra

Barregarri azalduko zara besteen aurrean zure errealitatea besteen kontestutik kanpo geldituko delako. Dena dela, zu zeu behintzat pozik izango zara eta bati baino gehiagori pozituko diozu gainera bizimodua.



LIBRA

Irailaren 24etik
Urriaren 23ra

Ederki ematen diozu zurrutari arduratzen zaituzten arazoak ahaztu nahian. Zeozer naturalagoa bilatu beharko zenuke irtenbide moduan, bestela ez dago aurrera egiterik. Tertulia asko egiten duten taldeetan ibiltzea primeran etorriko litzaizuke.



AQUARIUS

Urtarrilaren 21etik
Otsailaren 19ra

Lo baino ez dugu egingo datozen egunetan eta biharko utziko duzu gaur bete dezakezuna. Geroa alperren leloa izan ohi da eta zu ez zara horietakoa. Bizigarriez balia zaitetz ez moteltzeko. Jokorako egoera onean zaude, anima zaitetz. Lasaitasuna.



CANCER

Ekainaren 22tik
Uztailaren 22ra


Bapateko tenperatura aldaketa ebitatu beharrean zaude Cancer, digestio korte bat jasateko arriskua antzematen bait da. Komunikaziorako egoera onean izango zara. Ez zaitetz kokildu eta bota ahora datorkizuna. Urdaila ondo zaindu.



SCORPIO

Urriaren 24etik
Azaroaren 22ra

Hesteak lehortu samar edukitzea suerta liteke, jatorduetan egingo dituzun gehiegikerien ondorioz. Likido gehiago hartu eta arinago jan, bestela praktetan kabitu ezinda bukatuko bait duzu. Egoera honek bizimodu sexualean ere izango du eraginik.



PISCIS

Otsailaren 20tik
Martxoaren 20ra

Gehiegi arduratzen zara besteekin eta zeure burua zertxobait ahazten duzu. Bizimodu honetan denak ez dauka zertan lana izan behar. Ono merezitako oporrak hartzeko moduan zaude eta lagaitzazu ardura horiek bueltarako.

TOKI EDER

KAFETEGIA

Bañez Dk. 11,
ARRASATE

ESKERRIK ASKO ETORTZEAGATIK

Uribarri Etorb.
ARRASATE

KAFETEGIA

GOXOA

EYA

elektratresnak

etxeko lanak
egin ditzala makinak
festatan eta beti

Iturriotz 21, Tfnoa: 79 03 84
Erdiko kale 27, Tfnoa: 79 13 79

Itsaso taberna

gure berezitasunak, txuletak eta txanpinoiak

Zatoz probatzera!

MUGARRI

Berri-berriak



Escort



Orion



Ford modelo berriak